

**Sagardo zaharra
sagardo berria**



**Urtero agintzen
duzuna egi
bilakatu dadin**

**Aurten
BAI**



SEUR

☎ 902 10 10 10 ☎

Fakturazio lekua:
AUTOETXE C.B.

Salbatore auzoa

10. poligonoa, 18. pabiloia
BEASAIN

ORDUTEGIA: 9:00etatik 13:00 etara
15:00etatik 18:45era

Eskaintza:

*iragarki hau eramanda
5 kilorarte dohainik
Gipuzkoa barruan.*

Martxoaren 15erarteko balioa du eskaintzak.

 **orkli, s.coop.**



**Kalefazio eta ur beroarentzat diren erregulazio,
segurtasun eta kontrol osagaiak**

ORKLI Koop. E. - 20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)

ORKLI Koop. E.

Tfnoa.: (943) 88 07 00 Telex: 38415 ORKLI, e - Faxe: (943) 88 73 08

**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA**

Argitaratzailea:
Goierritarrak Kultur Elkartea

Dorre-etxea, 1
(Postetxe gainean)
124 posta-kutxa
20240 Ordizia
Tfnoa: 943 88 96 12
Faxa: 943 88 27 19

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Argider Mujika

Erredakzio Batzordea:

Mikel Albisu, Joseba Telleria,
Ane Martin, Loinaz Agirre eta
Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista eta
kolaboratzaileak:**

Joseba Telleria, Aitor Calvillo,
Xabier Urteaga, Urko Irastorza,
Jon Ordoñez, Joseba Etxezarreta,
Maidor Azurmendi, Saroi Jauregi,
Iñaki Gurrutxaga, Amaia Auz-
mendi eta Iñaki Murua.

**Fotokonposizio eta maketazioa:
GOIERRITARRA.**

Inprimaketa: Gertu inprimategia
(Zubillaga auzoa, Oñati).

Tirada: 7.400 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere
gain hartzen derrigorrez, aldiz-
karian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

HAMABOSTALDIAN NABARMEN



Beasaingo eta Ordiziako udalek elkarrekin antolatzen duten Antzerki Garaia gaur hasi eta apirilaren 23ra arte izango da. Guztira 8 antzezlan ikusteko aukera izango da, launa herri bakoitzean. Hiru euskaraz, bat elebietan eta lau gazteleraz. Legorretako aktorea den Asier Zinkunegiren 'Miedomedá' lana programan sartu dute. Antzezlan honekin emango zaio amaiera aurtengo ekitaldiari. Egitarau zehatza:

Urtarrilak 15: Alexis Valdésen 'Me sale de mi cabecita' lana, Ordiziako Herri Antzokian, 22:15ean. Gazteleraz.

Urtarrilak 22: Grappa taldearen 'Muac' antzezlan, Beasaingo Usurbe Antzokian, 22:15ean. Gazteleraz.

Otsailak 12: Teatro el Cru-

**Antzerki
Garaia gaur
hasiko da
Ordizian eta
Beasainen**

ce taldearen 'Maria Sarmiento', Beasaingo Usurbe Antzokian, 22:15ean. Gazteleraz.

Otsailak 26: Lourvier's taldearen 'Lourvier's Story' antzezlan, Ordiziako Herri Antzokian, 22:15ean. Gazteleraz.

Martxoak 12: Tanttaka taldearen 'Dakota' antzezlan, Beasaingo Usurbe Antzokian, 22:15ean. Euskaraz.

Martxoak 26: Maskarada taldearen 'Izarretako Bitakora', Ordiziako Herri Antzokian, 22:15ean. Euskaraz.

Apirilak 16: Ados taldearen 'Desperrados' lana, Beasaingo Usurbe Antzokian, 22:15ean. Euskaraz.

Apirilak 23: Miedomedá taldearen 'El sueño del pato' lana, Ordiziako Herri Antzokian, 22:15ean. Elebiduna.

Funtzio bakoitzeko sarre-
rak 800 pezetan egongo dira
salgai. Denboraldi osorako
abonoak 4.800 pezetan dau-
de salgai, bi antzokietako
leihatiletan, Ordiziako Ba-
rrera Jauregian eta Beasain-
go Udaleko Kultur Sailean.

BOTA BERTSOA



Aitor Sarriegi

*Goierriko bertso-eskolako ikas-
le ohia*

Euroa

*Doinua: Hamarreko
nagusia.*

Europar sartu omen ginen ta
eguneratze horrekin
dirua ere bateratzeak
eman du nahiko zeregin.
Burtsa mundura jaio aurrea
aurtengo urtearekin
baina denean sartzen denean
bere indar guztiekin
kalera irten beharko dugu
kalkulagailuarekin.

Zero batzuek gutxituko da
bankuan nere libreta
azkenik zenbat diru daukadan
asmatzen badut, Eureka!
Euroa hartu beharko dugu
eta baztertu pezeta
nik pentsatzen dut azken batean
ona dela aldaketa
Borboia gure txanponetatik
desagertuko da eta.

GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

*Eusko Jaularitza-
ko Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta*

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



1998 eta Goierri enpresarialaren atzeko aldeak

Azken urteotan, komunikabideek, behin eta berriro diote Goierriko ugazabak, Lanbide eskolaren laguntzaz, eredutzat hartu behar direla lantegi konkurrentzialak jartzerakoan.

Hala ere, errealitate honek badu atzeko alderik, gure eskualdeko enpresa garrantzitsuen ohiko errealitatearekin ez hain eredu-garriak diren beste alderdi batzuekin zerikusia duena. Honen adierazgarri 1998aren zehar suertaturiko istripu larriak.

Joan den maiatzaren 20an, Cubrenor kontratak kontraturiko Montajes Jaizkibel kontratako 20 urte zituen Ramon Pastoriza langilea, Aristaingo lantegian hil egin zen. Azken enpresa honetan ere, urriaren leian, Ferrocil kontratako 50 urteko Julian Gonzalezek heriotza aurkitu zuen. Bigarren biktima hiru hilabeteko buruan. Ez zen erantzunik eman, ez langileen aldetik ezta komunikabideek jaso berauen berri.

Joan den uztailaren 23an, Ormaiztegiko Irizar Koope-ratiban, Garikoitz Ezziola-zak, 20 urteko gazteak, eta Ikaslan kontratako langilea, zeina Irizarren kontrata den, heriotza aurkitu zuen aipaturiko kooperatibak Ormaiztegin duen instalakuntzan.

Azkenik, azaroaren 28an, CAFeko lantegian oraingo honetan, Miresman kontratako langilea zen Santiago Enjamio, lan-istripu batean hil egin zen. Miresman enpresa, Labelan-en kontrata zen.

Begiratu batez ohar gaitzke hildako langile guzti hauek, Aristrain, Irizar eta CAFen heriotza aurkitu zutenak, ez zirela enpresa horietako langileak, azpikontrata batzuetako langileak baizik. Deigarri suertatzen da hiru kasuetako hildako langile horiek, bigarren azpikontratako langileak izatea; eta Irizarren hildakoa-ren gaztearen kasuan, berau Goierriko Lanbide eskola-koa zen.

Goierriko Lanbide eskolak, Ikaslan enpresaren bidez, Aldibaterako Lan Enpresek beraientzat nahiko luketen kontratazio-politika burutzen du eskualdeko kooperatibekin.

Gure ustez, aipaturiko langile oro azpikontrataturiko enpresen langileak izatea ez da kasualitate hutsa; aitzitik, ulergarria da enplegu fijoerik ez duen langile batek segurtasun-neurriei arreta apalagoa ematea.

Hau dela eta, Goierriko ugazabek burutzen duten azpikontratazio-politika salatu nahi dugu. Era berean, uste dugu, aipaturiko enpresetako langileek CAFeko langileek hartu duten ildoari jarraitu beharko lioketela, ugazaba-politika tamalgarri honen amaiera aldarrikatuz.

ESK (sindikaturia)

Noizko benetako Gabonak?

Negua heldu dela ezin uka dezakegu eta honek dakartzan aldaketak nabarmentzen hasiak dira. Eguraldi aldaketa jasaten hasiak gaudela eta honekin batera begibistakoa kaleen itxuraldaketak. Jada Gabonetako oporrak eta hauekin batera Gabon gaua, Olentzeroaren etorrera, inuxente eguna, urte zaharra agurtu urte berrian sartu... Belaunaldiz belaunaldi burutu diren ohiturak eta mendez mendez sendituz sendira igaro direnak.

Familia, latinetik datorren ohiko hitza daukagu. Urte sasoi honetan elkartzen dena, urteari agur esateko eta urteari kaixo esateko. Ohituraren eraginarengatik. Ohiturak, gizartearen ondorioz aldatzen den kulturaren zatia.

Kultura, ohituren poderioz mendez mendez erakutsi dizkiguten gauzak. Gauza anitzak, zehatzak eta bereizleak. Tokian tokikoa-rengatik hizkuntza eta nortasun propioa edukitzearen arrazoia.

Gauza multzo hauek, Historia osatzen dute. Historia, denboran zehar gertatu diren gertakizunetaz osatua dagoena. Historia, Arotan banatua dagoena, Aroak mendeak osatzen dituenak, mendea hamarkadatan banatua dagoena, hamarkadak urtez osatua dagoena.

Historia ere badu gure Euskal Herri maiteak. Tamalez historia luze, gogor eta esanguratsua azken hamarkada hauetan. Mendetan zehar berezia izan da gure Euskal Herria, Foruen kontua gogoratzea besterik

ez daukagu. Zapaldua ikusi nahi zuten, suntsitzen saiatu ziren, Gernika, Europako hizkuntza zaharrena desagertarazten saiatu ziren, belaunaldiz belaunaldi igarotako ohiturak debekatzen saiatzen ziren, geure nortasunari uko egitea behartu gintuzten baina Euskal Herriak Historia guztian zehar egin zuen bezalaxe geure zenari eutsi genion eta eus-tearen ondorioak ordaintzen ari gara.

Gabonak dira eta honekin batera famili osoaren bilketa etortzen da, usadio zaharrak dioten bezalaxe. Euskal Herriko zenbait familiek ezingo diote usadio zaharrari eutsi. Beraiek euskaldunak dira, euskaldun ohiturak bete nahi dituzte baina ezinezkoa zaie, geure nortasunari eus-tearen ondorioak jasaten ari direlako. Nahi eta ezin. Ezin eta ukatu. Beste urte batez ezingo diote urteari denak batera agur esan ezta ere kaixo esan; Zergatik? Zeinbat euskaldunek Euskal Herria defendatu dutelako. Euskal Herriaren nortasuna, askatasuna, autodeterminazioa, independentzia aldarrikatu dutelako. Geurea, denona denarengatik borrokatu dutelako, azken batean Historia propioa edukitzearen ordainaren ondorioa. Noizko izango ditugu benetazko gabonak?

Naiara Azkona (Beasain)

TXANDAKA

Bai, nahi dut

Ezkontza erritualeko hitzei buruz ote diodan? Ez, ez naiz ba horretaz ari. Beno, agian bai, Beasaingo Ikastola berriko gurasoek beren ikastolarekin egin duten ezkontzaz ari naiz, bai. Hori da hori ausardia! Ez gainera itsu-itsuan, ongi pentsatuta eta zer jokatzeko zuten garbi izanik, aurrrera. Bejondeizuela!

Badakit batzuk, edo baten bat behintzat, Gabonetako ekimenaren aurka aritu dela. Zergatik? Auskalo, egonezinez, antolaketa sortzen ari zen giro eta elkartsuna ikusirik, sosegatu ezinik seguru asko. Ekintza eskasak, herritarren aurkakakoak, gizarteari ekarpenik egiten ez diotenak, zentzugabeak edo antzeko ezaugarriak zirelako ez behintzat. Ezinezkoa deritzot horri.

Uste dut edonork beretzat hartzeko moduko adibidea eman diguzuela ikuspegi bat baino gehiagotik begiratzuz:

- 150 familiak edo osatutako ikastola izanik, ausardia galanta adierazi diguzue antolatutako ekintza denak pentsatzen hastearekin bakarrik eta ongi burutu dituzuelarik; zer esanik ez.

- Limosna eske hasteko ohitura dexente zabaldu da gure artean eta zuek ongi antolatutako zerbitzu bat eskaini duzue, joan nahi zuenarentzat. Gainera, nik dakidanez, emankizunetan parte hartu duten kirolari, kantari eta abarrek ohi dutena jaso dute.

- Goierriko lantegi batzuk busti dituzue euskerazko eta euskeraren aldeko ekimenean.

- Herritarrei, Beasaingo elkarte, denda, e.a. luze bati aukera eman diezue interes orokorreko ekintzak gauza ditzaten.

Seguru, beste adibide gehiago eta bikainagoak ere eman dituzuela baina, denetan handiena; gogoia eta beharrak elkarlanean zenbat dezaketen erakutsi diguzue. Alegia, elkarlanean ez zaigula ahaztu. Eta zaigula diot, ekintzok, zuek antolatu badituzue ere, goierritar askok era desberdinean parte hartu duelako izan baitira hain dizdiratsuak.

Baina hori bai, zuei esker konturatu gara asko, oraindik ere, auzolana eta elkarlanak zer esan nahi duten badakigula eta Goierri bailaran hamaika ekintza burutu litezkela bertatik, bertakoek eta bertako bizitza biziagotzeko. Izan ere hainbeste goierritar ño-ñostiartuk eta ño-ñostiartu nahian dabilzanek hain jartzen naute goibel! Zorionak!

Iñaki Murua



Zer eskatzen diozu 99ari?



Eñaut Telleria

**21 urte, ikaslea
segurarra**

Aurrekoa baino hobea izatea, batez ere Euskal Herria askatzeko bidean. Horrela segituz gero, aurtengo Olentzerok ikatza ekarriko dio horretan saiatzen ez denari.

**Igone Eskisabel
Ustariz Ormaetxea**

**Amaia Sainz
22 urte, langabetuak
zaldibitarrak**

Ustaritz: lana.

Igone: fundamentuzko lana.

Amaia: pasa dena bezain ona izatea.



Jaione Izagirre

**22 urte, langabetua
zaldibitarra**

Osasun ona eta lana izatea.

UNTXUNDEI
garajea

OSINALDE
karrozategia

☎ 943 88 28 21
☎ 943 16 07 06
ORMAIZTEGI



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN

**"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobek"**



K. Nagusia 35 Elozegi, 14 Sta. Maria, 19
☎ 943 88 77 58 ☎ 943 88 72 79 ☎ 943 16 00 44
BEASAIN LAZKAO ORDIZIA

ZINEA

GOIENIZ:

Urtarrilak 28, 'Razielen itzulera' laburmetraia eta 'Afliccion', 21:00etan, Usurbe antzokian.

ORDIZIA:

'Me sale de mi cabecita'. Ostirala 15: 22:15. 'Mulan'. Larunbata 16: 19:30 - 22:15; igandea 17: 16:45. 'La hora de los valientes'. Igandea 17: 19:30 - 22:15; astelehena 18: 19:30.

BEASAIN:

'Ronin'. Ostirala 16: 22:15; larunbata 17: 22:15; igandea 18: 19:30 - 22:15; astelehena 19: 19:30.

'Mulan'. Larunbata 16: 17:00 - 19:30; igandea 17: 17:00.

ANTZERKIA

BEASAIN:

Urtarrilak 22, Antzerki Garaia: Grappa taldearen 'Muac!' antzezlan, Usurbe Antzokian, 22:15ean.

ORDIZIA:

Urtarrilak 15, Antzerki Garaia: Alexis Valdesen 'Me sale de mi cabecita' lana, Herri Antzokian, 22:15ean.

B ERTSOAK

ZEGAMA:

Urtarrilak 23, kiroldegian, 22:30etan, bertsolariak: Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Jesus Mari Irazu, Joxe Agirre eta Angel Mari Penagarikano.

'Afliccion'

Paul Schraeder
(EEBB, 1997)

Wade New Hampshireko herri txiki batean Sheriff da, eta gizon bakartia eta alarguna izaki ez du asmatzen bere alabarekiko harremanetan eta emazte ohiaren irainak jasan behar ditu behin eta beriz. Behinola amets egindako familia zoriontsu baten hondarrak dira, amesgaizto baten hondarrak, bere haurtzaroko zorigaitzak, aita mozkorti baten mehatxupean, ahaztu ezin dituelarik. Margierekin duen harreman triste antzekoa da bere barneko samina piska bat gozatzen gauza bakarra.

Pekatua, erruen garbiketa, zurikeria morala, indarkeria eta heriotza dira, bere aurreko filmetan bezala, Schraederren irudi hotz eta mingarriei indarra ematen diotenak, gure bizitza eta ekintzak lotzen dituzten emozioetan sakondu nahi duten irudiak bilatuz. Judutar jatorriko egile honentzat, zinea gizakiaren barrualderantz irekitzen den atea baita.

BEASAIN:

Urtarrilak 24, Garin auzoan, 11:00etan, Iker Zubeldia eta Ekaitz Goikoetxea beasaindarren bertso saioa.

ERAKUSKETAK

BEASAIN:

Urtarrilaren 28ra arte, 'Euskal Herria eta dinosauroak (duela 120 milioi urte)' erakuketa, Usurbe Antzokian.

Urtarrilaren 23tik 29ra arte, Aterpe Tabernako lehiaketara aurkeztutako

haurren lanen erakusketa, Aterpe Tabernan.

ORDIZIA:

Urtarrilaren 22tik otsailaren 12ra bitartean, Olatz Goibururen pintura erakusketa Barrena Kultur etxean.

HITZALDIAK

BEASAIN:

Urtarrilak 15, 'Ikasketak bideratu' zikloa, Euskal Herriko Unibertsitateko ikasketen inguruko adierazpenak, Txindoki Alkartasuna Institutuko Areto nagusian, 19:00etan.

Urtarrilak 18, 'Euskal Herria eta Dinosauroak (duela 120 milioi urte)' hitzaldia, 19:30ean, Udaletxeko Batzar Aretoan.

Urtarrilak 19, 'Euskal Herriaren historia geologikoa (450 milioi urteko bi-daia)' hitzaldia, Udaletxeko Batzar Aretoan, 19:30ean.

Urtarrilak 19, 'Itsaspeko labak, Kantauri itsasoa, Euskal Herriaren emertsioa' hitzaldia, Udaletxeko Batzar Aretoan, 19:30ean.

Urtarrilak 21, 'Paisajearen higadura eta modelatua' hitzaldia, Udaletxeko Batzar Aretoan, 19:30ean.

IKASTAROAK

BEASAIN:

Urtarrilaren 18an hasita, Windows 98 ikastaroaren hasiera, Asmubek antolatuta, 9:15etik 11:30era.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Atorrasagasi (Bustuntza - Ordizia) 943882938.

Urtarrilak 16-17: Jauregi (Santa Maria, 2 - Ordizia). 943160949.

Urtarrilak 23-24: Laurnaga (Kale Nagusia, 4 - Ordizia). 943881828.

ABENDUAN SALDUENAK

LIBURUAK:

- Banbulo**
Bernardo Atxaga (Erein)
- Ipuin erotikoak**
Batzuk (Txalaparta)
- Egin investigacion**
Pepe Rei, Edurne San Martin (Txalaparta)
- Oroituz**
Jon Arretxe (Elkarlanean)
- Urregilearen orduak**
Pako Aristi (Erein)

DISKOAK:

- Benito Lertxundi E.O.S.**
'Auhon sinfonikoa' (Elkar)
- Kepa Junkera**
'Bilbao 00:00 h' (Resistencia)
- Ruper Ordorika**
'Dabilen harria' (Nuevos Medios)
- La oreja de Ban Gogh**
'Dile al sol' (Sony)
- Wazen**
'Erritmoa 2zi' (Run Down)

Baga-Biga Kulturgaiak emandako zerrenda

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Salerosketak:

❑ Garajea salgai Beasainen, Errekarte kalean. 943 160226. 9:30etik 13:30era eta 15:30etik 19:30era deitu.

❑ Lokala salgai Beasainen J.M. Iturrioz kalean. 67 m², 3 alde argitara ematen du. Oso modu onean. 943 16 02 37 - 943 852818.

❑ Panasonic VHS bideoa salgai. Merke eta egoera onean. 943 88 40 96 (eguerdi eta gauetan).

❑ Pianozko eskusoinua salgai. Prezio interesgarria. 943 18 04 26 (gauez deitu).

❑ Compaq ordenagailua salgai. Monitora eta prozesadorea biak bat dira, oso leku gutxi okupatzen du. Oso prezio onean. 943 187364.

❑ Kotxea salgai, SS-AL matrikula. Egoera onean. 943 881938. 20:00etatik aurrera deitu.

❑ Olivetti idaz-makina salgai. Prezio onean. Ia berria. 943 882278 - 943 882047.

❑ 10 hilabeteko zezen limousina salgai. 943 800490.

❑ Vespa zuria salgai. SS-AV. 943 187448.

❑ Boxer arrazako txakurkumeak salgai. Txertatuak eta pedigreearekin. 943 853244 - 608 770651.

❑ Trabesiako eskiak salgai. Egoera onean. 943 162222.

❑ Kotxeko irrati kasetea salgai: 6.200 RDS erdua, 12 konpak diskeko kargadora, lau altaboz, 130 w, hiru biotakoak. Denak Pioneer markakoak eta egoera onean. Guztia 100.000 pezetan. Mikel. 943 885883.

❑ Babarrun beltzak salgai. 943 881802.

Lana:

❑ Maizpide euskaltegiko neska bat familia euskaldun bat ari da bilatzen Lazkaon edo inguruetan. Marta. Asteazken 943-889231. Asteburuan 943-610458.

❑ Edozein etxeko altzari (sukalde, logela, egongela...) bota edo behar ez badituzu, gustura hartuko genituzke. 943-881573.

Etxebizitzak:

❑ Donostiako Amaran neska bat behar da pisua osatzeko. 943 45 38 94.

❑ Ordizian edo Zaldibian pisua konpartitzeko lagun bat behar da lehenbailehen. 919-856033.



**BATZUK LOTSAGARRI
IBILTZEN DIRA**

Urtebete pasa da, Ataungo Udal gobernua herri-batzar baten bidez empresa pribatu baten eskutik Lareo mendian azpiegitura turistikorik erraldoi bat egiteko asmoa herriari ezagutarazi zionetik. Batzar hartan egoteko aukera izan nuen eta bertara hurbildu ziren herritar askok proiektuarekiko ez adostasuna eta zalantza agertu zuten. Ondoren herritar batzuk bere ez adostasuna gutunen bidez agertu izan dute egunkarrietan eta neuk ere nire ekarpen txikia egin nahi nuke.

Azken aldian ixiltasun handi batean murgilduak gaude eta nik behin behin ixiltasun handi honekin amaitu nahi dut. Bada garaia ixiltasuna apurtu eta herritarrok eztabaidan sartzeko. Bada kit asko garela proiektu hau gogoko ez dugunak bere ondorioak ikaragarriak direlako Lareoko ingurunearentzat, baina gai izan behar dugu gure eze-tza plazaratzeko behar hainbesteko oihartzuna izan dezan erabaki guneetan.

Lareoko proiektuarekiko ez adostasuna bi arrazoi hauetan oinarritzen dut:

1.- Ingurugiroarentzat ondorio kaltegarriak izatea; proiektu honekin baimentzen baita Aralar mendian eskuhartze zuzena, gaur arte ezinezko jotzen zena eta uste zen herriko kaletik urrun egoteak babes-tzen zuela.

Lareoko proiektuak biltzen duen azpiegitura turistikorekin dimentsioa handia da eta ondorioz bere eragina ingurunean handia izango da. Maila honetako ingurugiroaren ustiapenak ezinbestean ekosistemako orekaren apurketa suposatzen du.

2.- Pizgarri sozio-ekonomikoa izango dela eta herriaren egungo joera beharokorra hautsiko duen antido-

Eta Lareon zer?



toaren ideia gezurtatzea.

Lareoko proiektua ez zait iruditzen biderik egokiena denik herriko bizitza suspertzeko, defenditu izan den bezala eta gainera uste dut errentagarritasun ekonomikoaren aurretik zenbait printzipio egon behar direla. Jakin badakigulako proiektu honekin bultzatu nahi diren lanpostuak gutxi direla eta bere ihardunbidea turismoa dela jakinda badakigu ziklikoa dela. Alegia, eskaintzak behera, gora bezain azkar egiten duela. Eta modaren haize boladak uste baino gehiagotan eragiten diotela.

Azken hau izan da udal gobernua Lareoko proiektuaren defentsan erabili izan duen argudio nagusienetako bat.

Jakin badakigu guztiok, Atanek, azken urte hauetan beherako joera demografiko bat ezagutu duela eta honen ondorioak herriko bizitza esparru guztietan nabaritzen ditugu egune-

ro, bizitza sozial eta kultural baten ahultza bat eman delarik. Honi gehitu behar zaio, aurreko Udal gobernua agerturiko ezintasuna politika publikoak aktibatzeke; hots, etxebizitzaren eraikuntzan, kultur ekipamenduen eraberritzean eta abar.

Orain egungo udal gobernua Lareoko proiektua, gabezia guztiak gainditzeko baliagarri izango den proiektu miragarri bezala aurkezten digu.

Beraz, honek guztiak hausnarke-ta handi bat eskatzen digu eta aldi berean guztioi lagunduko digu Ataungo etorkizuna eraikitzeke lan honetan lehenengo hobeak finkatzerakoan. Atan nekazal herri bat da eta bere ondare handiena inguratzen duten lur zabalean aurkitzen diren baso eta mendiak dira. Bigarren sektoreko ihardunbidea oso txikia eta apala da. Aurrerantzean ere ezaugarri hauek kontutan hartuz eta erron-

ka berriei aurre eginez antolatu behar ko da ihardunbide sozioekonomikoa Atan nire iritzi apalean.

Beraz ezin uka dezakegu, egungo momentua paregabea dela Atan herriaren berezitasunak eta abantailak kontutan hartuz guztiok herri honentzako plangintza bat adostu eta praktikan ipintzeko. Benetako galderei erantzungo dien proiektua izan dadin; esaterako, zer nolako ihardunbideak bultzatu beharko genituzke herriaren nortasuna eta izadiaren errespetuaren oinarrituak izan daitezen?

Edo eta auzoen artean oreka mantentzera bideratuko diren proiektuak zenbaterainoko lekua izan behar dute? Hamaika galdera gehiago sortuko zaizkie herritarrei.

Nik eztabaida irekitzea besterik ez dut nahi eta hortik aurrera herritarren partaidetza berak markatuko du eztabaidaren dinamika.

Amaia Auzmendi (Ataun)



Angela San Juan
Farma-etxe

● Konpresio terapia: galtzerdiak edo mediak. Hanketan konpresio-gradiente ematen dute, orkatiletan intentsitate handiagoarekin eta gainerako hankan progresiboki gutxituz; era honetan odolaren isuria hanketako zainetatik bihotzera handiagotu egingo da, zainetan odola pilatzeko aukera, hanka handitzea, nekea eta mina gutxituz; tronbosia eman dezaketenen odolbilduak sortzeko aukera ere gutxitu egingo da.

Konpresio galtzerdien bidez eragin terapeutiko egokia lortzeko, neurri egokikoak erabili beharko dira puntu guztietan konpresio egokia lortzeko. Garrantzitsua da galtzerdiak goizean lehenengo ordutik jantzi-ta edukitzea, hankak oraindik nekatu gabe daudenean, izan ere, behin odola hanketan pilatuta ezin izango baita pilaketa hau jaistea lortu. Gainera oso zaila da kargatutako hanketan galtzerdiak jantzea. Era ezberdinetako konpresio galtzerdiak daude, arazo-

AHOLKUA

Aldaketa baskularrak (II): Babes neurriak

aren larritasunaren araberakoak edo egin behar dugun lanaren araberakoak.

- Ariketa bereziak egin zirkulazioa aktibatzeko, batez ere ohean dauden gaitxoek.
- Kirol hauetakoren bat egin: dantza, fondoko eskia, golf, igeriketa, txirrindularitza, txangoak edo egunero ordu erdiko ibilalditxoak.
- Bi orduro postura aldaketak. Lan estatikoa edukiz gero saiatu hankak gora eta behera mugitzen. Oinutsik ibili ahal denean.
- Hankak zertxobait altuago jarrita lo egin; ohearen hanketan 10 zentimetroko zurezko takoak jarri. Jaikitzen garenean hankak erlaxatuago izango ditugu.
- 20 gradu baino gehiagoko tenperaturak ebitatu.
- Oinetan eta pantorrietan ur hotzeko dutxa bota, egunean behin baino gehiagotan, 3 edo 5 minutuz.
- Plantila ortopedikoak erabili oin lauak dauzkanak.
- Pisua jaitsi. Elikadura egokia, fibra askokoa, fruta, barazki eta zerealak dituenak: gatza gutxitu.

Abenduaren 27tik aurrera
berriturik gatz

**BESTE BATZUK JANTZI
EGITEN GARA**

Egunkaria
euskaldunon

Zuzenketa

GOIERRITARRAren azken alean kaleratu genuen egutegian akats handia zegoenez, ale honekin batera egutegi berria doakizue.



Jose Manuel Ros

Ordiziako PSE-EEko zinegotziaren aurkako erasoa izan zen larunbata goizaldean. Indar gutxiko lehergailu batek eztanda egin zuen Rosen laneko bulegoan. Atean



Elurra

Urtarrilaren 11n elurak zuritu zuen Goierri. Dena den, ez zuen kalterik sortu elurak herrietan. Hori bai, Otzaurte, Mandubia eta Lizarrusti mendateak itxita egon ziren trafikoarentzat.

jarria zegoen lehergailua eta suhiltzaileek itzali behar izan zuten eragindako sua.

Erasoa salatzeko, igandean, urtarrilaren 10ean, ordu laurdeneko bilkura ixila egin zen Ordiziako Enpa-

rantza Nagusian. Ordiziako Udaleko ordezkariak, HBkoak izan ezik, izan ziren bertan. Gipuzkoako eta Goierriko hainbat sozialista ere bertan izan zen. Garbiñe Biurrun epailea ere bai.



Mari Karmen Garmendia

Gasteizko Gobernua Kultur sailburu kargua beteko du datozen urteotan ere Mari Karmen Garmendia ormaiztegiarrak. Aurreko legegintzaldiko lanari eutsiko dio, baina bozeramale lana Josu Jon Imazi utzi dio.

Istripua Ataunen

52 urteko Ataungo Juan Antonio Urteaga hil egin zen abenduaren 25ean, berak gidatzen zuen traktorea irauli ondoren.



Eguberrietako azoka berezia Ordizian

Jendetza handia bildu zen Ordizian, abenduaren 30ean, Eguberrietako azoka berezian. Ikuskizun eta lehiaketa ugari izan ziren. Argazkian ageri diren bezelako oreinek jendearen arreta bereganatu zuten. Errezil sagar lehiaketa Gabiriako Isabel Zumalakarregik irabazi zuen. Fruta lehorrena, Ezkio-Itsasoko Mikeli Lopetegirentzat izan zen.

Era berean Euskal Herriko Arkumearen Kofradiak 6 goierritar izendatu zituen ohorezko kofrade, Eguberrietako azoka berezian, abenduaren 30ean: Jose Juan Castillo sukaldaria, Juan Vicente Erauskin Ordiziako alkatea, Mattin Egunkariako komikigilea, Aitor Garmendia Itsasondoko txirrindularia, Ana Irastorza DVko kolaboratzailea eta Ixiar Galparsoro Segura Irratiko esataria.

Goimen Elkartean dinamizatzaile lanpostua betetzeko deialdia

Lanpostuaren eginkizunak: nekazaritza elkarrekin harremanak sakontzea; sektorean egon daitezkeen proiektu eta ideiak Juntan aurkeztea, horietako zenbait proiektu aurrera ateratzen lagunduz; proiektu berriak sortu, landu eta aurrera ateratzea; eta Goimeneko teknikariari beste zenbait lanetan laguntzea.

Hautagaiak bete beharreko baldintzak: baserritarra izatea (baserrian bizi eta nekazal iharduera izan) edo nekazal arloko ikasketak burututa izatea; Goierriko udalerri batean bizitzea; gutxienez 18 urte izatea; gidatzeko karneta edukitzea; eta euskara menperatzea.

Baloratuko diren gaiak: sektorearen ezagutza; nekazal elkarrekin bateko kide izatea; talde lanerako gaitasuna; eta iniziatiba.

Lan baldintzak: kontratua egun erdikoa izango da; lanpostua txandakakoa da eta 2 urteko iraupena izango du; lanpostua administrazioako 18. mailan baloratzen da.

Izen ematea: Goimen Elkartean (Ordiziako Santa Maria kalea, 4) izena emateko jaso ahal izango den instantzia bete eta bertan entregatu beharko da. Izena emateko 1999ko urtarrilaren 21ean amaitzen da.

Euskarazko zinea Beasainen

Tinkoren eskutik

Urtarrilaren 13an, Beasaingo Usurbe Antzokian, euskarazko zinea, 'Rudy txerria', ikusteko aukera izan zuten hainbat ikastetxetako ikasleek. Zehazki esateko, Beasaingo Alkartasuna Lizeoa eta La Salle ikasketxetakoek, Lazkaoko San Prudentzio ikastetxekoek eta San Benito ikastetxekoek eta Idiazabalgo Aita Iparragirre herri eskolakoek.

Euskara zine aretoetara eramatea du helburu Tinko euskara elkarteak, pelikulak euskarara bikoiztuz eta banaketa eginez. Duela 5 urte sortu zen elkarte. Asier Arrieta bertako kideak adierazi digunez, "helburu hori lortzeko lehenengo ohitura sortu behar da. Egokiena umeekin hastea da. Erdarazko zinerik ezagutzen ez badute, euskarazkoa ezagutuz, ohitura sortuko delako". Haurrengana iristeko ikastetxe, zenbait erakunde eta udalekin lanean hasi ziren. Piskanaka-piskanaka gero eta ikastetxe gehiago sartzen ari omen dira proiektu honetan eta lerro hauetatik eskerrak eman nahi dizkie, Tinkoren proiektuan sinisteagatik. Iaz 75.000 haur eta gazte ikusi zuten euskarazko zinea, "baina harrera hobea izan zitekeen. Ikastetxe asko eta asko kanpoan gelditzen dira. Pelikuletan lantzen diren baloreak ikastetxean lantzeko unitate didaktikoak prestatzen dituzte adituek. Era honetan, alde batetik euskara lantzen dute, eta bestetik pelikulako hainbat balore lantzeko aukera daukate". Gazteentzako pelikula bat euskaratu dute aurtun pantailaratzeko, 16-17 urtekoentzat: Leonardo DiCaprioren 'Rebelde baten egunkaria'. Kasu honetan drogomenkotasun gaiak lantzen dira. Hauxe gain badituzte beste pelikula gehiago ere: 'Charlie eta Louise', 'Jack Amazonasko errege' eta 'Big'. Euskarari eta bikoizketa mailari garrantzia handia ematen diote.

Pelikula bat kalean jartzeak 4-6 milioi pezetako kostua dauka, eta dirua du Tinkok arazorik handiena. 'Character' pelikularen eskubideak erosteko aukera izan zuten, baina bikoizteko dirurik ez zuten, ez zuten erosi. Eskola orduetatik aparte, ordutegi komertzialetan ere eman dituzte, baina askoz ere zailagoa omen da emaitza onak lortzea. Dirulaguntzak hainbat udaletatik, Gipuzkoa eta Arabako Diputazioetatik eta Jaurlaritzako Hezkuntza sailatik lortzen dituzte. "Hezkuntza proiektu bat bada, baina hizkuntza proiektu bat ere". Helduentzako zinea euskaraz noiz izango den galdetu diogu. "Arazoa dirua da", erantzun digu Arrietak.



Rufino Iraola eta Irati Goikoetxea Zapirain bertso-sariketako irabazleak

Rufino Iraola zaldibitarra, helduen mailan, izan da Zapirain bertsopaper lehiaketako irabazlea, 'Baserriaren gorantzan' izeneko lanarekin. Gazteen mailan, Irati Goikoetxea beasaindarrak 'Erreka Mari' lanarekin ere lehen saria lortu zuen.

Atorrasagasti farmazia

1999an Atorrasagasti izango da, astelehenetik ostiralera, 20:30etik 9:00etara, Goardiko farmazia. Ordiziako Bustuntzan dago. 943-882938.

Dendei zuzendutako kartoi bilketa zerbitzu berria

Sasieta Mankomunitateak dendetako kartoi-bilketa zerbitzua hobetzeko asmoz, hainbat aldaketa egin ditu. Batetik, bilketa egunero egingo da, astelehenetik ostiralera. Horretarako, dendariak, iluntzean, gertuen daukan zabor puntuan utzi behar da kartoia, edukinontzian sartu gabe.

Gipuzkoako Odolki txapelketa

Errenteriako Luciano Carcedoren odolkiek irabazi zuten Gipuzkoako I. Odolki txapelketa, abenduaren 30ean, Ordizian.

Iparragirre Sariak

Mikel Garmendia Ordiziako aktoreari Iparragirre saria eman diote. EITBko profesionalik onenak saritzen dira sari honekin, eta ikusentzuleak izaten dira epaileak. Pelikula eta antzezlan ugaritan hartu izan du parte Garmendiak.

Euskadi Irratiko kiroletako esataria den Joxe Mari Apaolaza lazkaotarrak ere jaso du Iparragirre Saria, irratiko esatarien atalean.



ARANDIA
Garaiea

LADA
Ssang Yong

AUTOEN KONPONKETA

N-1, z/g

Iurre Auzoa

☎ 943 88 09 47

OLABERRIA



Eguneroko menua 850 pezeta
astelehenetik ostiralera,
12:30 etatik 15:00 etara

Zaldizurreta, 7 ☎ 943 88 98 44 BEASAIN

UNIBERTSITARIOAK:

- ✓ Behar duzuen laguntza Beasainen.
- ✓ Ordutegi zabalak goizez eta arratsalde.

IKASTEK AKADEMIA

☎ 943 160 120

Joan Iturrilalde, 5

BEASAIN

OLABERRIAKO ARANGUREN BASERRIKO DOLAREAN SAGARDOA EGITEN DUTE ORAINDIK:

"Betitik egin izan dugu etxerako sagardoa etxean"

Garai batean sagardoa baserri gehienetan egiten zen. Dolarea ere baserri askotan izaten zen eta dolarerik ez bazuten, dolarea zeukan gertueneko baserrira joaten ziren etxerako adina sagardo egiteko. Ohitura hau oso leku gutxitan gordetzen da gaur egun. Etxerako egiten zen edaria izatetik, komertzializatzeraino iritsi da mama goxoa. Olaberriko Aranguren baserrian dolarea martxan jartzen dute oraindik ere urtero, etxerako sagardoa egiteko. Joxe Arrietak egiten du sagardoa.

Olaberriako Aranguren baserrian, Joxe Arrietaren etxean, dolare zaharra martxan jartzen dute oraindik ere. Aurrekoengandik datorren ohitura ondo gordetzen dute, sendiartekoen laguntzarekin. "Betitik egin izan dugu sagardoa etxean. Orain gutxixeago egiten dugu. Lehen baserri gehienetan izaten zen dolarea. Gaur egun oso gutxi gelditzen dira. Dolarerik ez zeukatenak hona etortzen ziren, etxeko sagarrekin sagardoa egitera", esan digu Joxek. "Etxeko sagarrekin etxerako sagardoa egiten genuen. Lehen sagasti asko zegoen Olaberrian, ikaragarri.



Joxe Arrieta dolarean lanean.

Arg.: Javier Fernandez

Egunero edaten genuen, gaur egun ardoa edaten den bezala", gaineratu du. Santiotan hasten ziren sagardoa egiten.

Gaur egun dolare gutxi daude baserrietan eta oraindik ere etortzen zaizkie auzokoak sagardoa egitera. Joxek dolarea uzten die.

Gazilokea

Dagoen sagarrarekin egiten dute sagardoa. Joxeren esanetan, zenbat eta mota gehiago nahastu, orduan eta sagardo hobea ateratzen da. Hala ere, gazilokea omen da sagarrik onena sagardoa

egiteko.

Garbitasunak ere zerikusi handia dauka. Sagar ustelak baztertu egin behar dira eta sagarra garbitu, lokatza hondarrak kentzeko.

Prozesua

Sagarra txikitu eta dolarea sagarrez betetzen da. Zurezko taparekin estali, gainean beste egur batzuk jarri, eta palankari eraginez, prentsatu egiten da sagarra. "Hasieran palankari erraz eragiten zaio, bukaeran indar gehixeago egin behar da". Dolaretik ateratzen den sagar zukua kupeletara era-

maten da ondoren, sagardoa egin dadin. 40-45 egun behar izaten da sagardoa egiteko. Ondoren, botilatan sartzen dute sagardoa Aranguren baserrian.

Dolarea bezalaxe, etxe gehienetan izaten omen ziren zurezko kupelak, gaur egungo sagardotegietan dauden kupelak baino txikiagoak. Joxek aurtengo sagardoz, bi kupeltxo bete ditu; bata haritzeko da eta bestea gaztainazkoa. "Kupelaren materialaren arabera sagardoa ezberdina egiten da. Bi kupeletan dolaretik sagar zuku bera sartu arren, sagardo ezberdina ateratzen dira. Haritzeko kupela da sagardoa egiteko onena", argitu digu.

Joxek bere esperientziagatik sagardo berdinek egiterik ez dagoela ikusi ondoren, sinesgaitza egiten zaio gaur egungo sagardotegiek hain sagardo berdina egitea. "Naturala dela esaten dute baina ez dakit, zerbait badauka. Guk sekula ez dugu berdina ateratzen. Nahiz eta sagardo berdina sartu, kupel bakoitzean sagardo ezberdina ateratzen da".


Kupelak babesean eta temperatura aldaketarik ez dagoen lekuan egon behar dira; "haize korrienterik ez dagoen lekuan, bestela egun hauetako hego haizearekin mindu egiten da sagardoa".

Etxean etxerako adina sagardo egiten zen lehen eta ez zegoen gaur adina sagardotegi inguruan. Astigarra ga aldean bai, baina Joxek gogoratzen duenez, Goie-



Aranguren baserriko dolare zaharra oraindik ere martxan dago.

200 urteko xehagailua Zalbiden



Inguruko baserrietan sagardoa betitik egin izan dela adierazten duten tresna asko gelditzen da oraindik ere. Olaberrian dolarea

dagoen bezalaxe, Abaltzisketan, Zalbide sagardotegian ere badago aspaldiko tramankulurik. GOIERRITARRA aldizkariaren zenbaki honetako azaleko argazkia adibide bat besterik ez dugu. Sagar xehagailua, dolarea eta sagar zakuak neurtzeko azaltzen dira. Sagar xehagailuak 200 urte inguru omen ditu. Sagardotegiko nagusia gogoratzen da txikia zenean nola txikitzen zituzten sagarrak. Duela 7 urte martxan jarri zuen eta 2.000 litro sagardo egin zituen. Hori bai, geldo samar.

rrin, Olaberrin bertan dagoen Aranguren Txiki baserria zegoen. Baserri honetan oraindik ere sagardoa etxean egiten dute eta kanpoan saldu. "Aranguren Txiki zen sagardotegia. Hango etxe-koandreak, Gabrielak, bakailaoa prestatzen zuen. Bakailaoa da sagardotegiko jakia, bixi-bixia, sagardo gehiago edateko. Garai hartan oso merke zegoen bakailaoa, pobreen janaria zela esaten zen. Aranguren Txikik Beasasaingo Goie-

rrian saltzen zuen sagardoa", azaldu digu Joxek.

Beranduago hasi ziren Olaberria bertako Amoskategi baserrian ere sagardoa egiten. Kanpotik ekarritako sagarrarekin sagardo asko egiten omen zuten.

Oroimenak

Joxek txiki-txikitatik gogoratzen du bere baserrian sagardoa egiten zutela bai etxekoek, bai kanpokoek. Gustora egoten omen zen Joxe kanpokoak sagardoa

egitera etortzen zirenean. "Kanpokoek kontuak entzuten gustora egoten ginen. Lan gutxi eago ere egiten genuen orduan. Dolarean gelditzen ziren sagar hondarrak ematen genizkien behiei eta arbi-hostotara joan beharrik ez genuen izaten. Behiek arbia baino gustorago jaten zuten". Muztio gozoa ere edaten zutela gogoratzen du Joxek, baita batek baino gehiagok, mama goxo "gehiegi" edatea ere.

Garai berriak

Garai batean baserrietan etxerako sagardoa egiten zen, baina garaiak asko aldatu dira. Gaur egun oso baserri gutxitan egiten da sagardoa eta sagardoa kupeletik edan nahi duena sagardotegietara joan beharrean dago.

Goierriin aukera handia daukagu horretarako. Gero eta sagardotegi gehiago ditugu. Zerrenda hauxe dugu: Abaltzisketan Zalbide, Altzagan Olagi, Ataunen Urbitarte, Beasainen Kattalin, Gabirian Korta, Ikaztegieta Begiristain, Lazkaron Amebi, Legorretan Aulia, Olaberrian Etxe-Zuri, Ordizian Tximista, Zaldibian Txertakadi eta Zerainen Oatza. Sagardotegi bakoitzaren telefono zenbakiak 27. orriko publizitatean dituzue.

Aurten sagardotegien artean bada berrikuntza bat. Begiristainen, orain arte, norberak eramane eta prestatu behar zuen haragia eta ogia. Aurten bertan prestatuko dituzte txuletak.

On egin dizuela sagardo berriak!

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN

**lues
rothers**
BEASAIN

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

ChristianDior.

San Inazio, 14 ☎ 943 889390 BEASAIN



MUJIKALIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19

☎ 943 88 11 94

ORDIZIA

ANE MIRALLES ORDIZIARRA ESKIZ, PIRAGUAZ ETA TXIRRINDUZ:

'Hiru pauso, hiru norabide' abentura Eskandinaviako lur hotzetan

Kirolari eta abenturazale talde batek, tartean Ordiziako Ane Mirallesek, Eskandinavian 'Hiru pauso, hiru norabide' abentura hasi zuten 1998ko otsailaren 2an. Hiru ataletan banatu dute abentura: lehenengo pausoa, 2.000 kilometrokoa, eskiz egin zuten; bigarrena, 1.500 kilometrokoa, piraguaz; eta azkena, txirrindaz, 3.500 kilometro egingo dituzte. Apirilean ekingo diote azkeneko pausoari.

Urtaro ezberdinetan, hiru bitarteko ezberdin erabiliz, eskia, piragua eta txirrindua, Eskandinavia zeharkatzeko abenturan murgilduta dago Ane Miralles ordiziarra, beste hainbat lagunekin batera. 'Hiru pauso, hiru norabide' izena eman diote zeharkaldiari. Dagoeneko lehenengo bi pausoak eman dituzte; lehenengoa neguan eskiz eta bigarrena udazkenean piraguaz. Hirugarren pausoan, Hego Amerikako Patanogia txirrinduz zeharkatu eta ondoren Aconkagua mendia igotzea zen hasierako asmoa. Baina den-



Ane Miralles, 42 urteko ordiziarra, Pasaiaiko ikastolako irakaslea da.

bora aldetik gaizki ibili dira espedizioa prestatzeko eta txirrinduz egin beharrekoa Eskandinavian bertan egingo dute. Apirilean, Aste Santua pasatu ondoren, ekingo diote hirugarren eta azken pausoari.

Kirol arloko helburuez gain, badute beste helbururik, Anek adierazi digunez: "jarraipen informatiboa egiten ari gara, Egunkariak astero-astero gure kronikak ateratzen zituen; bideo eta liburua kaleratzea; helburu pedagogikoa ere bai, Euskal Herriko hainbat eskoletako haurrek Euskal Herriaren berri emanez idatzia egin zituzten Eskandinaviako hurrei banatzeko; bestetik, Tolosako Asuncion klinikaren bitartez, azterketa fisiko-medikoa egiten ari

gara, gorputzak, kirol bakoitzean, zein aldaketa egiten dituen ikusteko. Grasak, diametroak eta perimetroak neurtzen ditugu astero".

Prestakuntza

Ordiziarrek adierazi digunez, ez dute prestakuntza berezirik egin hainbeste kilometro hain temperatura hotzetan egiteko. "Lehenengorako adibidez, bakoitzak trineo bat eraman behar genuen arrastaka, eta bizkarrak bildurra ematen zidan. Orduan, gimnasioan ordu gehiago sartu nituen bizkarra indartzeko. Bigarrengoan, uda guztian piraguan ibili nintzen. Baina beste aparteko prestakuntzarik ez dut egin".

Piraguaren kasuan, dena den, egoera txarrean,

etxean egindakoak ez omen zien ezertarako balioko. "Piraguan gindoazenean irauliz gero, gure artean laguntzeko entrenamentu bereziak egin genituen. Baina guk itsaso barean egin genituen. Eta gu ibili garen tokian, itsaso bare askorik ez dugu ikusi eta haizea ere indartsua ibili denez, laurok elkarren ondoan joateko arazoak izaten genituen. Beraz, laguntzaren beharrean ibiliko bagina, ez dakit nola ibiliko ginatkeen", aitortu digu Anek.

Esfortzu fisikoa eta psikikoa

Lehenengoa pausoa fisikoki gogorragoa izan omen zen. "Trineoa eramatea oso gogorra zen. Trineoak 40 bat kilo pisatzen zituen eta tarte oso elur bigunarekin egin genuen topo. Otsailaren erdialdera asterik beroena izan genuen eta gurgildun tramankulua asmatu behar izan genuen, elurrik ez baizegoen. Oinez egin genituen kilometro horiek".

Bigarrenean, esfortzu fisikoa baino alde psikikoa indar handiagoa izan omen du, "agian itsasoa ez delako medio naturala. Mendian ohituagoak gaude. Itsasoan tentsio handiagoak izaten dira. Tarte arriskutsu samarretan ibili ginen. Sue-

KEMEN KIROLAK



Zumalakarregi, 1
943 88 51 68
ORMAIZTEGI



ITSASOKO OSTATUA

- ✓ Etxeko sukaldaritza.
 - ✓ Eguneroko menua 800 pta.
 - ✓ Udaberrian terraza zerbitzua
- Aldez aurretik erreserba egiteko:
943 88 03 15

Lehen pausoa, lehen norabidea



Otsailaren 2tik apirilaren 27ra: Oslotik Nordkappera. Eskiatzen 2.000 kilometro egin zituzten. Elur faltagatik 45 kilometro egin behar izan zituzten

oinez. Eguraldia oro har, lagun izan zuten, negua ez baitzen oso gogorra izan. Tenperatura, batzaz beste, -5° eta -10° bitartekoa izan zen. Hotzena -23°. Pulkan edo elur leran 35-50 kilo eraman dituzte.

dia utzi eta Finlandian sartu ginenean, 30 kilometro tarte bat zegoen, eta behin erdi parera iritsi eta arazoaren bat bazen, ezin zen atzera egin, aurrera luzeera berdina baizegoen. Zeharkaldi osoan haizea, ekaitza, kazkabarra... denetik izan genuen. Larritasunak pasatu genituen zenbait momentutan, baina ohitu egiten da, edo hotzean gauza asko egiten dira. Orain pentsatzen jarrita, zein arriskutan ibili ginen konturatzen naiz". Bigarren pausoa, gainera, nahikoa lan izan zuten helmugara, Helsinkira, iristen, negua hilabete aurreratu egin zelako eta zenbait tartetan itsaso bazterra izozten ari zelako.

Ipar Atlantikoa eta Baltikoan barrena arraun egin

zuten. Baita laku, aintzira, ibai eta kanaletan ere. Hiru hiruburuak lotu zituzten. Ipar Atlantikoko animalia ugari ikusi zituzten: delfinak, fokak, izokinak, bakailaoa, langostak, medusak... ikusi dituzte. Baltikoan oso gutxi, oso kutsatuta baitago.

Lehenengo pausoa neguan egin zuten. Ia gaurik gabeko egunak izan zituzten espedizioaren azkeneko egunetan. "Egun horietan asko aurreratu genuen. Gauez eskiatzen genuen gehiena, elurra ondoen orduan egoten baitzen". Bigarren pausoa, alderantzizko fenomeno gertatzen zitzairen. Udazkenean, egunak oso motzak izan zituzten.

Bigarren pausoa, bigarren norabidea



Irailaren 17tik azaroaren 19ra: Oslotik Helsinkira. Piraguaz 1.500 kilometro egin zituzten, 64 egunez. 100 kilometro ibai uretatik, 200 kilometro ubidetatik, 200 kilometro aintziratik

eta 1.000 kilometro itsasoz (Ipar Atlantikokoan eta Baltikoan). Hasieran eguraldi goxoak, 15°-20°, izan zituzten. Gero haijetsuak. Azken bi asteetan oso hotza, 0° / -10°. Tenperatura hotzena Helsinkin izan zuten, -10°. Olatu handiak eta ibai korrontearen aurka ere arraun egin behar izan zuten. 4 egunetan ekaitz gogorrenatik ez zuten arraun egiterik izan. Batzaz beste egunean 25 kilometro egin zituzten, 5-6 ordu arraunean. Etapa luzeenak, distantziari dagokionean, 42 kilometrokoak izan dira; eta denborari dagokionean, 8 ordukoa. Zeharkaldiaren hasieran uraren tenperatura 15°koa zen eta amaieran, 0°koa. Itsasoa izozten hasia zegoen leku batzuetan. Egunaren argi orduak: hasieran 13 eguzki ordu eta amaieran 7 ordu eta erdi.

Jendearen harrera beroa

Paisaia politaz gain, jendearen harrera beroak harritu du gehien Ane Miralles. "Iparraldeko jendea hotza dela esaten da baina oso ondo hartu gaituzte. Badakite hango negua oso gogorra dela eta ahal zuten guztia eman ziguten. Ez zuten ulertzen herrialde epel batetik zergatik joan ginen garai hotzenean Eskandinaviara. Lehenengo pausoa jende askorekin egoteko au-

kera izan genuen, bigarren goan oso gutxirekin. Izan ere, kostaldean oso jende gutxi bizi da. Han dauden etxe gehienak bigarren etxebizitzak dira, udako oporretarako".

Bertako komunikabideetan ere dextenteko tartea izan dute. "Zenbait kasutan, helmugara iristerako argazkilariz inguraturik egoten ginen. Garai hortan gu han izateak harritzen zuten gehien".

BERRIZ ARANBURU

ERROPADENDA

Nagusia, 8

943 88 04 53

BEASAIN

LOINATZ

**Taberna
Jatetxea**

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN



BEASAIN

15 milioi pezeta Esteli eta Somotora

Nikaraguako Esteli eta Somoto herrien alde Udalak azarotik aurrera antolatu zuen bono salmentan bi milioi pezeta inguru bildu ziren abenduaren 31ra arte. Asmoa 12.300.000 pezeta lortzea zen, eta horretarako Udalak beasaindar bakoitzeko 1.000 pezetako txartelak atera zituen. Gizarte eta Ongizate Saileko Agurtzane Iturbek adierazi zuenez, *"lortutakoa bada dirua, ez da gutxi, baina kanpainaren antolatzaileen asmoetatik pixka bat urrun geratzen da"*. Hala ere urte hasiera honetan hiru milioi inguruetara gerturatuko direla pentsatzen dute Gizarte Ongizate Sailean. Txartel hauen salmenta urtarrila bukaera arte, gehienez otsaila hasiera arte, iraungo du. *"Denbora nahikoa da, eta luzatzeagatik luzatzea ez zaigu komeni Nikaraguara bidali beharra dago-eta"*, gaineratu zuen Agurtzane Iturbek. Txartel salmentan lortzen denaz gain, Udalak beste 12.300.000 pezeta emateko konpromezua hartu zuen.

Kanpaina hasi zenetik bi hilabete pasa ondoren, *"bazarudienez jendea oraindik kontzientziatu gabe zegoela"*, abenduaren 20an Pottoloen Maratoi Solidarioa antolatu zen. Helburua dirua herri guztiaren begi bistan jasotzea zen. Batez ere umeentzat zuzenduta zegoen, beiraientzako 1.000 pezeta ematea gehiegi baita, eta horregatik eman zitzaion Pottolo Maratoia izena, *"umeei askotan hogeituroko txanponari pottolo esaten baitiote"*. Guztira 530.000 pezeta lortu ziren, eta Gizarte Ongizate Sailean emaitza ontzat jotzen



dute, zegoen eguraldi txarra zela-eta jende asko ez baitzen kalera atera. Diruaz gain, Udaletxetik liburuak bidaltzeko asmoa ere bada. Hala ere Nikaraguarekin harremanetan jartzeko eta gauzak bidaltzeko arazoak daude. Lasarteko Udalaren bitartez bidali nahi dituzte, Esteli eta Somotorekin anaituta dagoelako eta Josean Lizarazu Nikaraguan dagoen beasaindarrarekin harremana duelako.

Udalaren kanpaina hasi zenerako, orde, hainbat herriarrek emana zuten Nikaraguarako diru-laguntza beste erakunde batzuetan. *"Lehen bilera azaroaren 23an egin genuen, eta beste erakundeek azaro hasieratik zituzen kontu-korronteak irekita"*. Hala ere, pasatako denbora hori dirua behar bezala iritsiko zela bermatzeko behar izan zutela gaineratu

zuen, egoeraren bideoak lortzeko, Esteli eta Somotora deitzeko eta hango alkateekin hitz egiteko. *"Guk bide zuzenetik bidali nahi genuen dirua, askotan Nikaraguako Gobernuaren bidez egiten baldin bada iragazki handia dago eta. Hori da beasaindarrei esan nahi dieguna, garantia bat badagoela. Harreman zuzena dugu hango jendearekin"*, azaldu zuen Agurtzane Iturbek.

Azaroaren 23ko bilerara herriko hainbat banketxe, denda eta erakundeei luzatu zitzairen deialdia, eta bertan Udalak Esteli eta Somotora bidaltzeko bi neska beasaindarrak, Silvia Gomez eta Esther Saldaña, eta han bizi den beste beasaindar batek, Josean Lizarazuk, diapositiba bitartez Nikaraguarako egoera azaldu zuten. Agurtzane Iturbek esanetan erantzuna nahiko ona izan zen, 50 erakunde inguruk bonoak saltzea eta kartel bana jartzeko konpromezua hartu zutelarik.

"Hemen oso ondo bizi gara"

Iturbek adierazi zuenez telebisten bitartez zabaltzen di-

ren irudi gogorrak efektu handia lortzen dute momentu horretan bertan, *"baina gero handik hilabete batera edo bitara bakoitzak bere bizimodua egiten du, eta gu hemen oso ondo bizi gara"*.

Somoto eta Estelirekiko harremana ez da sortu Mithe hurakanaren ondorioz. Badi-ra urte batzuk Gizarte eta Ongizate Sailak Hirugarren Munduan proiektuak subentzionatzen dituela. Orain dela bi urte lau izan ziren, eta horien artean zeuden Nikaraguako bi: Esteli eta Somotokoak. Diru-laguntza emateaz gain Silvia Gomez eta Esther Saldaña joan ziren Nikaraguara iazko abuztutik urrira arte, bidaltzen zen dirua benetan gauzatzen zen ala ez ikustera. Itzuli eta azaroan gertatu zen hondamendia. *"Bidali beharreko dirua Somoton lursailak eta abereak erosteko zen eta Estelin estolderia sistema hobetzeko, baina hurakanaren ondoren ez du zentzurik horretarako erabiltzea beste handiago batzuk daudelako eta orain ez baitago ez abererik, ez estolderiarik"*.

1997ko dirua bidaltza zegoen, eta 1998koa aurtan jasoko dute. Bi neska beasaindarrak Esteli eta Somotora joan zirenean ikusitakoaren arabera Udalak ematen zuen dirua eraginkorra da benetan. Joaten diren bakoitzean txosten bat egiten dute zer behar dauden aipatuz. *"Ikusten da egoera ez dela batere ona, ez higieenea, ez eskola, arropa edo janik. Lehendik ere behar asko zeudela esaten zuten, eta gero hurakana"*. Bidaltzen den dirua etxeak eta errepideak eraikitzeko eta sendagaiak lortzeko erabiliko da.

Jon Ordoñez

Dinosaurioak Euskal Herrian

Aranzadi Zientzia Elkarteak antolatuta urtarrilaren 6an Usurbe Antzokiko erakusketa aretoan 'Euskal Herria eta Dinosaurioak' erakusketa jarri dute ikusgai hilaren 28a arte. Helburua planeta osoa dinosaurioen menpe zegoenean gure lurra zuen itxuraren alderdi ezezaguna erakustea da. Erakusketarekin batera hainbat hitzaldi antolatu dira datozen egunetarako: urtarrilaren 18an, 'Euskal Herria eta Dinosaurioak'; 19an 'Euskal Herriaren historia geologikoa'; 20an 'Itsaspeko labak, Kantauri Itsasoa, Euskal Herriaren emertsioa', eta azkenekoa hilaren 21ean 'Paisaiaren higadura eta modelatua'. Hitzaldi hauek guztiak Aranzadiko Geologiako saileko Jose Angel Torres eta Luis Ignacio Vierak emango dituzte, denak arratsaldeko 7,30etatik aurrera.

ZEGAMA

Joan zen irailaren 3an jaio ziren Jose Luis eta Edurne-ren hiru seme-alabak. Lehenengo aldiz jaio dira Zegaman hirukiak, herriari poztasun handia emanez. Argazkian dituzue Edurne eta Jose Luis, hiru haurtxoeekin. Ezkerretik eskubira: Ainhoa, Joseba eta Andoni.

Zazpi hilabeterekin jaio ziren. Lehenik Ainhoa izan zen kilo bat zazpiehun eta hirurogei pisatuaz; ondoren Andoni, kilo bat zazpiehun eta hirurogeitabostekin; eta azkenik, Joseba kilo bat ehun eta hogeitabostekin. Joseba, Andoni eta Ainhoa baino hamabost egun beranduago izan zen etxeratua. Gaur egun hirurak ederki ari dira irabazten eta inolako arazorik ez dute agertzen.



Hirukotea zaintzeko etxeko eta familiakoen laguntza dute eta guztien artean moldatzen dira. Kalean herritarren begiradak hiru haurren autora zuzentzen dira, ez baita ohikoa horrelakorik ikustea. Familiarteak gustora eta gogoz ikusten dira hiru haurrak aipatzerakoan. Zorionak eta

zorte on bikoteari eta familiakoei!

Organu kontzertua

Larunbatean, urtarrilaren 16an, izango da organu kontzertua San Martin Parrokian. Organo joleak Juan Luis Atxega eta Arantza Otaño izango dira. Kontzertu ederraz gozatzeko aukera

izango da iluntzeko zortziak laurden gutxiagotan.

San Sebastian danborrada

Tobera Musika Eskolako eskutik, urtarrilaren 19an egingo da herriko kaleetan zehar, urteroko danbor zaparrada entzuteko aukera izango da, arratsaldeko 4,30etatik aurrera.

Bertso jaialdia

Aurtengoan, urtarrilaren 23rako antolatu dute Kasi-nokoek bertso jaialdia. Kiroldegian izango da, gaueko 10,30etan. Bertan parte hartuko duten bertsolariak Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Jesus Mari Irazu, Joxe Agirre eta Angel Mari Peñagarikano izango dira.

Maidar Azurmendi

EZKIO-ITSASO

Datorren otsailaren 7an Alegia auzoan Euskadiko kros txapelketa izango dugu. Urola Kirol taldea eta Ezkio-Itsasoko Udalaren antolakuntzapean Euskal Herrian kros arloan dagoen ekintzarik garrantzitsuenak ikusteko aukera izango dugu.

Joan zen urtean Gipuzkoako kros txapelketa izan genuen herrian. Ikuspegi guztietatik esperientzia oso

Euskadiko kros txapelketa otsailaren 7an

egokia izan zenez, aurtengoan ekintza garrantzitsuenak antolatzeko aukera izango du herri txiki honek.

Ibilbideari dagokionez, bi mila metrotik gorako luzera, belarrez estalia eta guztiz laua dela esan behar. Hilabete baino gutxiago geratzen denez, garai honetan izaten dugun eguraldi euri-tsua kontuan izanik, ibilbidean hainbat egokitze egin beharra dago. Horretarako

antolatzaileek lanari ekin diote lasterketa egunean korrikalariak ahalik eta baldintzarik egokienetan aurkitu dezaten zelaia.

Partaidetzari dagokionez, Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, Nafarroa eta Iparraldeko mila korrikalari inguru izango dira irteeran. Kategoria guztietako gizon eta emakumeek parte hartzeko aukera izango dute. Lasterkarien artean Ezkio-Itsaso-

ko bi gazte izango ditugu. Datu honek herritarren artean sorturiko giroa nabarmen berotu du.

Beraz, otsailaren 7an guztiok espero zaituztegu Itsaso-Alegia auzoan gogorrrak bezain interesgarriak izango diren lasterketak ikusteko.

Joseba Etxezarreta

Argitarapen honen enbriko argazkian:

En la edición de esta publicación colabora:



fundazio
fundación

ORDIZIA

Urpeko kirol taldea martxan

Urte berria estreinatzearekin batera jarri dira martxan urpeko kirol taldekoak. Azken urtean espero zituzten baina emaitza txarxeagoak lortu bazituzten ere animotsu eman diote hasiera, 1999 urte honi. Era berean, inguruko gazteei deia luzatu nahi diete Ordizia Kirol Elkartea Urpekoak taldeko kideek animatu daitezen futbola, saskibaloia eta beste hainbat kirol bezain famatua ez den honetara punta daitezen.

Urteko lehen proba urtarilaren 23an jokatu da Ordizian bertan. Proba honetan Tolosa, Arrasate, Tafalla, Iruñea eta Ordiziako igerilariak arituko dira nor baino nor. Nahiz eta oraindik denboraldi haseran egon eta igerilarien maila ez den hoberena izango, saio polita ikusteko aukera izango da, antolatzaileek diotenez batzere ere mila eta bostehuneko proban.

Hasierako proba horrezaz gain beste hainbatetan ere parte hartuko dute, ordea, ordiziar igerilariak, hala nola, Tafalla, Iruñea, Tolosa, eta Gasteizen. Hauek guztiak igerilekuan izango diren bitartean hainbat travesietan ere arituko dira. Maiatzaren 23an Bidasoa ibaiaren jeitsiera izango da Hondarribian eta ekainaren 6an Hiru Hondartzetako Nazioartekoa Donostian. Ekainaren 19an Euskadiko txapelketa jokatu da Majori Kiroldegian.



Ordizia Urpekoak-eko eta beste talde batzuetako hainbat igerilari Donostian egindako travesiaren ondoren.

Azkenik, ekainaren amaieran urteko probarik garrantzitsuenak jokatu da Galizian, Estatuko Txapelketa hain zuzen. Bertan parte hartu ahal izateko igerilari bakoitzak aurretik ezarritako dauden denbora batzuk bete beharko ditu denboraldian zehar egindako probetan. Beraz, urte guztiko lanaren ordaina litzateke hau.

Orain urte batzuk lortutako emaitza bikain horiek ez badituzte lortzen ere, nahiko aurrean ibili ziren iazko denboraldian Ordiziako hainbat igerilari. Gogoratu orain ez urte asko Jon Iturrioz Europako igerilariarik hoberenekin aritzen zela lehian, estatuan aurkaririk gabe ibili ondoren hainbat urtetan. Oraindik beterano batzuk ere hor jarraitzen dute, hala nola Diego Diez, Mikel Iturrioz, Josu Buldain, Gorka Merino.... Emakumezkoetan emaitza onenak Olatz Mendizabalek lortu zituen iaz,

estatuko txapelketan bigarren geratuaz 800 metroko proban.

Ordizia Kirol Elkarteko Urpekoak-ekoek, beraz, ordiziar guztiak animatu nahi dituzte kirol honetan parte hartu dezaten. Majori Kiroldegian elkartzen dira egunero iluntzeko 9etatik aurrera eta ziur denek batera lehenagoko emaitza bikain horiek errepikatzea lortzen dutela.

Hainbat emaitza

● **San Silbestrea:** Irungo Iñaki Lopetegui gailendu zen gizonezkoetan urte amaieran jokatuak San Silbestre lasterketan. Emakumezkoetan Eli Martinez izan zen helmugara iritsi zen lehena. Irungoaren atzetik bertako Jose Antonio Blanco eta Jose Javier Cuadrado helmugaratu ziren. Aipatu partaidetza aspaldian ez bezalakoa izan zela, 220 korrikalari aritu baitziren lehian maila ezberdinetan.

● **Igeriketa:** Ordiziako Sari Nagusiko proban pronostiko guztiak bete ziren eta Sabir Muhammad gizonezkoetan eta Ashley Tappin emakumezkoetan nagusitu ziren. Bi estatubatuarrok erakutsi zuten, beraz, zergatik ziren faborito nagusiak. Muhammad-i tximeleta erako 100 metroko proban lortutako denborak eman zion garai-pena alemaniar taulan eta Tappin-i, berriz, 100 metro estilo librean emandakoak.

Peri arrakastatsua

Urteko azken asteazkeneko peria berezia izan zen. Eta berezia bi arrazoiengatik izan zen, Gabonetako Aparteko azoka egin zelako alde batetik eta hurbildu zen jende mordoagatik bestaldek. Izan ere 50.000 lagunetik gora ibili zen asteazken horretan Ordiziako kaleetan zehar zeuden postu ugariak ikusten eta produktuak dastatzen. Kapoiak, indioilarrak, ostrukak, oreinak, ardiak, sagarrak, barazkiak, odolkiak, artisau produktuak.... denak denen gusturako. Hainbat sariketa ere izan zen eta horien guztien emaitzak Berriak Labor sailean daukazue ipinita. Urtean zehar egindako peri bereziek izandako arrakasta ikusita, ziur udaletxeak aurtengorako ere beste hainbeste iragarriko dituela.

Aitor Calvillo

ANGEL IMAZ

PINTURA
eta
PAPERGINTZA



☎ 943 18 70 49

Ondramuño etxea

IDIAZABAL

JOAKIN ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko llantak
filtroak, olioak, engrasea
frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak
harezko txorrotadak

Errota Poligonoa

IDIAZABALgo sarreran

☎ 943 18 72 57



LEGORRETA

Urte Berri on!

Urte Zahar eguna

Urteari amaiera paregabea eman genion herritarrok ekitaldiz beteriko egun bati esker.

● San Silbestre krosa:

Bertan 44 korrikalarik hartu zuten parte. Emaizak: 5 urtera artekoetan: mutiletan Lander Iparragirre eta nesketan Sarai Mateo; 6, 7 eta 8 urtekoetan: mutiletan Kepa Jauregi eta nesketan Maddalen Felipe; 9, 10 eta 11 urtekoetan: mutiletan Markel Diaz eta nesketan Naiara Olano; 12, 13 eta 14 urtekoetan: mutiletan Xabier Perez eta Sonia Matos; 15 urtetik gorakoetan: mutiletan Iker Manso eta nesketan Edurne Arakistain.



Amnistiaren Aldeko Batzordeak deituta jende ugari ibili zen kantuan Eguberri bezperan. 125.000 pezeta bildu zituzten.

● **Pailazoak:** Arratsaldean hurrek Kiki, Koko, Moko eta Flax pailazoen 'Dantza eta Dantza' emanaldiarekin gozatzeko aukera izan zuten.

● **Argazki lehiaketa:** Iluntzean herriko Pulit-Zer? Argazkizale Elkartek antolatutako II. Argazki lehiaketa sariak banatu ziren. Gai librean Javier Barajas, Amaia Zabalo eta Jose Ig-

nacio Hernandez izan ziren sarituak. 'Legorreta' gaiari dagokionez, Iñaki Nazabal legorretarra izan zen garai-lea.

● **Dantzaldia:** Urte berriari ongi-etorria emateko Bilkoin Elkartean Karraxi taldeak eskaini zuen dantzaldian jende ugari bildu zen gorputza astintzeko asmoz.

Olentzerorik hoberena

Ugaro Herri Ikastetxeko hurrek Pryca hipermerkatuak antolatutako Goierriko I. Olentzero lehiaketa irabazi du 9 eta 13 urte bitarteko-en mailan. 60.000 pezetako saria irabazi dute.

Josune Amondarain



GOIERRITARRA aldizkaria lagundu,
urtean 1.500 pezetako kuota ordainduz.

Izen abizenak:

Helbidea:

Herria: **Tfnoa.:** **Adina:** **NAN:**

Lanbidea: **Banketxea:** **Bulegoa:**

Kodea: **Kontu zenbakia:**

ZALDIBIA

Zaldibia eta Katalunia kultur harremanetan

'Intercambio cultural. La cultura de los pueblos, folclore y gastronomía' jaialdiaren barnean Zaldibiako ordezkari bat joango da Kataluniara, Sant Peres de Ribes herrira hain zuzen ere, kultur topaketa hau umore onez igarotzeko asmoz. Espedizio honek gure herriko txistulari, txaranga, txalapartari, dantzari eta sukaldarien partaidetza izango du. Kultura trukaketa hau hilaren 23an ospatuko da eta hurrengo alerako espero dugu ezer berririk kontatzeari.

Hogei zaldibitar berri

1998a urte oparoa izan da herrian, jaiotza kopuruari dagokionez, azken urte hauetako kopuruak gaituz. 20 haur gehiagorekin hasi dugu urtea. Hildakoak, berriz, 19 izan dira.

Jaiotzak:

Iraitz Labaca Salazar
Josu Murua Larrarte
Xabier Cuadrado Lopetegi
Amaia Irastorza Ropon
Beñoat Aiestaran
Goikoetxea
Igor Garmendia Garmendia
Ilargi Beloki Sanz
Goizane Irastorza Fadrique
Olaia Luke Garzia
Inazio Aizpuru Mendizabal
Ioritz Karrera Mendizabal



Herriari eskerrak

Amnistiaren Aldeko Batzordeak eskerrak eman nahi dizkizue iragan diren eguberrietan laguntza eta partehartzea eskaini duzuen guztioi. Hilaren 24an 'Aiton-amon...' jantzita irten ziren baserriz baserri eta auzoz auzo, goiz goizetik kantu kantaz aritzeko asmoz eta nola ez xox batzuk lortzeko helburuarekin. Azken urte honetan, jende gaztea asko bildu da ohitura zahar honi segida ematera eta antza denez, azken diru kontaktetan nabaritu omen da, izan ere, 315.000 pezeta biiltzea lortu baitituzte. Beraz, lerro hauen bitartez, herriko baserritar, dendari, tabernari, kantari eta sukaldariei nola ez, eskerrak ematen dizkizue Zaldibiako Gestorak urte berria zaharra bezain emankorra izateko esperoan.

Azkenik, Eguberrietako saskia egokitu zaion Pablo Morales zaldibitar gazteari zorionak eman nahi dizkio Gestorak, "osasunarekin urratzeko" esanez.

Heriotzak:

Maria Dolores Vilariño Vazquez
Miguel Sukia Amundarain
Roman Arrizubieta Etxeberria
Miguel Jose Mendizabal Tolosa
Zacarias Barcina Gonzalez
Miguel Munduate Jauregi

Gaudencio Lopez Rodriguez
Jose Maria Erauskin Arruabarrena
Josefa Murua Mendizabal
Ignacio Sukia Arruabarrena
Teodora Mimendia Etxeberria
Eulogia Mendizabal Amundarain
Juan Antonio Elozegi Beloki
Jose Joakin Garmendia Jauregi
Miguel Martin Aranburu Etxeberria
Maria Beloki Garmendia
Miguel Leunda Mendizabal
Jose Urretabizkaia Telleria
Gloria Botran Gonzalez.

Urte Zahar eguneko manifestazio ixila

Udalak Urte Zahar iluntzerako deitutako manifestazioak erantzun zabala izan zuen herritarren artean. ZUT eta HB udal taldeek euskal presoen Euskal Herriartzea eskatzeko egindako manifestazio deialdiarekin herriko talde guztiek egin zuten bat eta atxekimendu kopuru hau islatu zen ekitaldian parte hartu zuten herritarren kopuruan.

*Saroi Jauregi
Iñaki Gurrutxaga*



943 88 55 00 ORDIZIA



Elektragaiaik
Sukaldeko altzariaik

Mariaratz, 4 88 86 84 BEASAIN

IDIAZABAL

Asteburu honetan jokatu da Ezolatzan azkeneko partidua. 17 urtez Idiazabal Kirol Elkarteko futbol taldeen etxea izan den futbol zelaia industrigune bihurtuko da laister. Uztaierako espero da futbol zelai berriaren inaugurazioa.

Ezolatzaiko futbol zelaia 1981eko abenduaren 8an inauguratu zen. Don Buenaventura Garmendia apaizak bedeinkatu zuen zelai berria. Jesus Serrano Kirol Elkarteko arduradunaren esanetan, "inaugurazioa eta partiduen hasiera goizeko 11,30etarako zeuden iragarrita baina meza ohikoa baino luzeagoa izan zenez ekitaldi guztiak ordu laurden atzeratu ziren". Egun hartako anekdota da hori. Estraineko partidua Jubenilen lehenengo mailako taldeak jokatu zuen Easoren kontra eta herritarrek 1 eta 4 galdu zuten, idiazabalarraren gola Fernando Alberdik sartu zuen. Ekitaldian Santiago Agirre orduko alkatea eta Gipuzkoako Aldun Nagusia izan ziren.

17 urte hauetan hainbat gorabehera izan da Ezolatzan. Serranoren hitzetan "1983ko abuztuan izandako uholdeek futbol zelaia erabat hondatu zuten. Denboraldi hartan ez zen partidurik jokatu eta 83-84 denboraldian hasi ziren berriro ere Ezolatzan erabiltzen".



Ezolatzan lehen partidua jokatu zuen taldea, goiko ezkerretik hasita: Bolinaga, Talavera, Gonzalez, fermin Galvan, Jesus Aranburu, Pello Ruiz, Zufiaurre, Cuellar, Fernando Alberdi, Ander Barandiaran, eta Iñaki Insausti.

Ezolatzaiko azkeneko partidua igandean jokatu du Jubenilen taldeak Lezoko Allerruren kontra arratsaldeko 14:45ean. Igandetik aurrera herrian aritzen diren lau taldeak inguruko herrietako futbol zelaietan arituko dira, regional mailakoak Legazpin, jubenilak Zumarragan, kadeteak Ordizian eta infantilak Seguran.

Futbol zelai berria egiteko lanak otsailean hasiko dira eta uztaierako bukatuta egotea espero da. Idiazabalgo Kirol Elkartetik jakinarazi denez inaugurazio ekitaldian Realak jokatu du. Udalak proiektua eskuarte du eta guztira 179 milioi pezetako inbertsioa eskatzen du zelai berriak. Udalak aurikusitakoa bai-

no dextente gehiago da kopuru hori eta proiektua aurrekontuari egokitzeko hainbat aldaketa egingo dira. Futbol zelai berria oso osorik Udalak ordaindu beharko du Foru Aldundiak ez baitio laguntzarik eman.

Danborrada

Jubilatuaren elkarteko kideak danborradan ateratzeko konpainia antolatzen ari dira. Jubilatuaren egoitzan egingo ditu entseiuak konpainia berriak. Beste guztientzat ondoko entseiu egunak ezarri dira. Urtarrilaren 20a eta 27a, arratsaldeko 18:30ean haurrak eta iluntzeko 20:30ean helduak. Hauek Guraso Elkartearen aretoan izango dira.

Pilota partiduak

Udalak eta ASPE enpresak

akordioa sinatu dute aurten herrian profesionalen hiru pilota partidu jokatu daitezzen. Lehenengo partidua Sanblasetan jokatu da, bigarrena maiatzean (gaztaren egunean) eta hirugarrena udazkenean. Partidu horiek jokatu ahal izateko Igarondo pilotalekua berdez pintatu beharko dute.


Sanblasetan kirol ekitaldi gehiago ere izango da, besteak beste Euskal Herriko sokatira txapelketako kanporaketa, Triala eta ohiko Herri Krosa ikusteko modua izango aurtengo festetan (horien berri zehatzago datorren alean).

Presoen alde

Ehundik gora lagun bildu zen Urte Zahar egunean herriko plazan Euskal presoen eskubideak bete daitezela eskatzeko egin zen konzentrazio isilean. Bilkura, Senideak taldeak deitu zuen eta Udalak plenoan onartutako mozioari jarraituz bertara joateko deia egin zien herritar guztiei. Lehendabizikoz EA, HB eta PNVko ordezkariak batera izan ziren gisa horretako ekitaldi batean.

Urtarrilaren 9an Bilbon egin zen manifestaziora bi autobus atera ziren herritik. Bidaia erdia Udalak ordaindu zuen.

Xabier Urteaga



ondoeta

© 943 88 31 02 - 943 88 74 51

Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

ALTZAIKUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

SEGURA

Futbola

Asteburuko emaitzak:

Errejonialak: Elgoibar 1-0 Segura. **Jubenilak:** Segura 0-0 Sto. Tomas Lizeoa. **Kadeteak:** Aizkorri 7-0 Beasain. **Infantilak:** Lagun Onak 3-0 Aizkorri.

Asteburuan etxean: Kadeteak: Aizkorri-Koskas. Jaen, goizeko 11etan.

Kirol eskolarra

Tenisean, urtarilaren 16an dira hastekoak. Neska alebinek Ordizian jokatu dute Jakintzako ena kontra eguerdiko 12etan. **Pelotan,** mutil benjaminen zegamarraren kontra arituko dira urtarilaren 16an, goizeko 10etan. **Mendi irteera:** urtarilaren 17an, goizeko 8,30etan plazatik irtenda, Donostiako Sagües auzotik Pasai San Pedrorainoko ibilaldia izango dute.

Labur-labur

● **Ixiar Galparsoro** herri-
tarra, Euskal Herriko arku-

Urtarrilaren 3an, taldekako lehen saioarekin hasi zen bolari herriarrentzat denboraldia. Martxeliño Agirrek, Antonio Agirrek, Imanol Agirrek, Jexux Mari Intxaustik, Joakin Izagirrek eta Jokin Izagirrek osatutako taldeak 2. postua lortu zuen Ategorrietako aurreneko jardunaldian. Urtarrilaren 10ean, Legazpiko Danontzako bolatokiaren izandako 2. eta azken saioan 4. egin zuten. Guztira 12 taldek parte hartuta, he-



Segurako Txoritegi bolatokiaren izango da Euskadiko txapelketa ekainaren 12an.

rritarrek 5. geratu ziren sailkapen orokorrean. Legazpiarrak izan ziren garaileak eta zeraindarrak bigarrenak. Urtarrilaren 17an banakako erregularitate txapelketa hasiko da Gabiriko Kortan. Hau, 12 jardunaldiren ondoren amaituko da apirilaren 18an. Honetaz gain, Gipuzkoako txapelketa, bikotekakoa, Lehendakari txapelketa, eta ekainaren 12an Segurako Txoritegi bolatokiaren izango den Euskadiko txapelketa ere parte hartuko dute.

mearen kofradekide berri izendatu zuten beste 5 goierritarrek batera abenduaren 30eko Ordiziako Gabonetako peri nagusian.

● **Elorriko elkarte berriaren,** lehendik dauden bazkideak eta berriak zein baldintzatan sartuko diren era-

bakitzeko eta bide batez urteko balantzea eta junta berriarekin egiteko bilera, hilaren amaiera aldera izango dela eta bazkide bakoitzari

jakin araziko diotela adierazi nahi dute bertako junta-koek.

Joseba Telleria



San Sebastian urtarilaren 24an

Santuaren eguna urtarilaren 20an bada ere, aste horretako jaien ospatuko da elizkizuna San Sebastiango ermittan. Auzoan urte barruan hildakoen aldeko mezari 12:00etan emango zaio hasiera eta Juan Jose Garmendia, Etxetxoko Txomin Garmendiaren osabak emana izango da. Ondoren, Udalaren laguntzaz hamaiketako eskainiko da bertaratuentzat. Meza garaian jasoko den dirua, ermittaren mantenimendu edo berrikuntzetarako erabiliko da.



Klubaren artekoan kanporatuak

Klubaren arteko Gipuzkoako txapelketa, urtarilaren 9an jokatu zuten itzuliko partiduetan final aurrekoetara pasatzeko eta bide batez Euskadiko klubaren artekoan jokatzeko aukerarik gabe geratu ziren Segurako taldekoak. Jubeniletan, Asier Katalina idiazabalarrak eta Inge Olanok joaneko 22 eta 16 irabazia bazuten ere, etxean 13 tanto besterik ez zituzten egin urretxuarren aurka. Afizionatueta, J. Castellanos altzatarak eta Jon Ander Hombrek, lehen partidua ere galduta, 22 eta 16 egin zuten aretxabaletarren kontrako itzulikoan. Argazkian, klubaren artekoan Segurako taldearekin aritutakoak.

Bestalde, hastear dagoen Intxaurrendoko torneoan hiru herriar dira parte hartzeak. Kadeteetan Garikoitz Oiarbide, jubeniletan Inge Olano (biak ala biak oraindik zehaztu gabeko bikoteekin) eta afizionatueta Jon Ander Hombrek J. Castellanoekin da aritzeak.

LAZKAO

Iaz baino haur gutxiago jaio dira herrian

Ekonomiaren bilakaera, ziklikoa dela dioten aditu asko daude munduan zehar, haurren jaiotzen tasa, ziklikoa ote den demostratzeko dago oraindik, baina, Lazkaoko azken urtetako datuak ikusirik baietz esan daiteke.

Iaz, 1998. urtean hain zuzen, 43 haur jaio ziren herrian. Hauetatik 22 mutilak ziren, eta gainontzeko 21ak neskak. Datu hauek pozgarriak diren ala ez jakiteko datu historikoei begiratzea nahikoa izaten da. Azken 6 urte hauetan haur gehien jaio den urtea, 97a izan zen 60 haurrekin, ondoren 94a 55 haurrekin, 95ean, berriz, 48 haur jaio ziren, iaz 43, eta haur gutxien jaio ziren urteak 96a 41ekin eta 93a 33rekin.

Ikusten dugunez, iazkoa ez zen izan, beraz, urte onezia jaiotze tasari dagokionez. Esan bezala, 43 izan ziren iaz jaiotako haurrak, goiztiarren, Andoitz Gutierrez Barreiro izan genuen, urtarilaren 13an jaio zelarik, eta beranduen jaio zena, berriz, Naia Begiristain Etxezarreta, neskato hau azaroaren 22an jaio zelarik.

Hildakoei dagokienean, Lazkaon bertan hil zirenak 14 izan ziren. Kopuru honetan ez dira sartzen ospitale-tan zendu zirenak edo bere bizia beste herriren batean



Astotxo eguna euriz gainezka

Aurtengo Astotxo Eguna euriak ilundu zuela esatea ez litzateke aldrebeskeria haundia izango. Euria latz egin zuen goiz osoan eta horri esker beste urtetan baino jende gutxiago hurbildu zen gure herrira.

Jende gutxiago gerturatu zen baina jende asko halere. Lazkao Txiki plaza beterik genuen urteroko ikuskizunaz gozatzeko, hau da, Egiptorako Ihesaren antzezpena ikusteko.

Ohitura zahar honen ondoren Goierriko I. asto lehiaketaren sariak eta asto proba jokatu ziren. Asto proban, etorri ziren bi partaideen artean, 'Sartzibarren' astoa izan genuen garaile 52 plazarekin, eta bigarrena berriz, Xabier Abendibarren astoa izan genuen 49 plazarekin. Egin zuten lanaz ohartzeko, esan behar da, lau plaza 28 metro direla.

Goierriko I. asto lehiaketaren emaitzak berriz, hauek izan ziren: astorik onena, Pilar Belokirena izan zen, eta hobeien atondutako astoaren saria berriz, Ansoategi Kultur Elkartek atondutakoari eman zioten.

Argazkian ikusten den bezala monjetan jartzen duten 'astotxoak' izan zen lehorrean egon zen bakarra.

galdu zuten lazkaotarrak.

Datu pozgarrietara berriro bueltatuz, 13 izan ziren gure herrian ospatu ziren ezkontzak, hauetatik 9 eliza bidez izan zirelarik eta gainontzeko 4ak juzkatuaren bidez.

Pala txapelketa

Aurrera dihoa Lazkaoko pala txapelketaren aurtengo edizioa. Gabonetako oporetan geldirik egon ondoren, asteburu honetan hasiko dira bigarren fasearekin.

Fase honetarako 8 bikote sailkatu dira. Bikote hauek, denek denek aurka jokatu beharko dute, ondoren, lehengo laurak, finalurreak jokatu dituzte, lehenengoak laugarrenaren aurka eta bigarren bikotea hirugarrenaren aurka.

Hauek dira aurrera darrariten 8 bikoteak, Arregi-Irizar, Soraluze-Barandiaran, Andonegi-Andonegi, Aierdi-Arnaz, Arrieta-Arrieta, Auzmendi-Barandiaran, Eskisabel-Insausti eta Imaz-Arnaz. Txapelketa, Lazkaoko festen aurretik bukatuta egongo delakoan daude eta orduan emango dizuegu garaileen berri.

Montxo Quina

Europako txapel-dun

Europako Wu-Shu txapelketan urrezko domina lortu du Montxo Quina herritarrak. Atenasen izandako txapelketan 65 kilotako mailan lortu du Quinak txapela. Aurretik munduko txapelketetan zorte txarra zela medio, garaipenaren atarian geratu bazen ere, Europakoan gogor borrokatu ondoren lortu du garaipena. Finalerako bigarren belgiar bat eta libaniar bat kanporatu zituen Montxok eta azken konbanean Gasnov errusiarra gailditzeko lortu zuen. Azaroan Hong Kongen izango duen munduko txapelketari begira dago orain lazkaotarra.

Urko Irastorza

ARRIETA

JATE TXEA

☎ 943 88 00 02

OLABERRIA

Ezkontzak,
jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak

iñAUSTi

KARROZERIA

N-1 errepidea, lurre auzoa
☎ 943 88 43 01 OLABERRIA

Montxo Quina

Europako Wu-Shu txapelketan urrezko domina lortu du Montxo Quina lazkaotarrak. 65 kilotako mailan lehiatzen da Quina.

Alfredo Mostajo

Espainiako Serieko Turismo lehiaketa irabazi du Ormaiztegiko Alfredo Mostajok, Citroen ZX Kit-Cat autoarekin. Abenduaren 27an Beasainen jokatu zen Erauskinerako igoeran hirugarrena izan zen.

Andres Vilariño

Beasaingo Erauskinerako I. igoera Andres Vilariño auto gidariak irabazi zuen. Ezbeharra ere izan zen lehia honetan. Auto bat errepidetik atera eta 4 lagun zauritu ziren.

Aitzol Sukia

Profesionaletan irabaziz egin zuen debuta Zaldibiako

Aitzol Sukia pelotariak urtarilaren 1ean Eibarko As-telenan. Tolosa III. izan zuen bikote lagun eta 22-10 irabazi zioten Gonzalez eta Almandozi.

Zuhaitz Ayuso

Itsasondoko txirrindularia bigarren izan zen Espainiko Ziklo-kros txapelketan, sub 23 mailan.

San Silbestre

Beasaingo San Silbestrea Toni Peñak irabazi zuen gizonetakoan. Emazkumezkoen artean, Natalia Azpiazu izan zen onena.

Sabir Muhamed

Ordiziako Igeriketako Sari Nagusian Sabir Muhamed gizonetakoan eta Ashley Tappin emakumezkoetan izan ziren irabazleak. Abenduaren 30ean jokatu zen lehiaketa Majori Kiroldegian.



Gipuzkoako Eskolarteko Pelota txapelketaren finalak Beasainen

Urtarrilaren 3an jokatu zen Beasaingo Antzizar kiroldegian Gipuzkoako Eskolarteko Pelota txapelketa. Bikotekako txapelketa izan zen, maila ezberdinetan. Goierriko taldeei dagokienez, txapelketan, Beasain, Ordizia, Zaldibia, Legorreta eta Lazkaoko taldeek hartu dute parte txapelketan. Finaleraino ordea, lazkaotarrak bakarrik iritsi ziren, infantiletan. Finalera iritsi, eta finala irabazi. Altuna-Arzalluz bikoteak berastegiarekin 18-11 irabazi zien.

Alebinetan Azpeitiak 16-18 galdu zuen Lizartzaren aurka. Benjaminetan azkenik, azpeitiarrek irabazi zuten alkizarren aurka (18-3). Orain pelotari gazteek taldekako txapelketa hasi dute, martxoan bukatzeko asmotan.

IBAI-ONDO



**ZURGINTZA
ALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK**

Antzizar Auzoa, z/g
☎ 943 88 05 43 BEASAIN



MUJKA



BEASAIN ☎ 943 88 74 00

KONTSULTORIO MEDIKU KIRURGIKOA

25 URTE goierritarrei mediku zerbitzu espezializatu onenak eskaintzen

J.A. Lasa	Kardiologia	C. Poveda	Anatomia patologikoa
J. Alzua	Nerbio eritasunak	R. Lopez	Lan, kirol... istripu
F. Arrue	Barne medikuntza	R. Garate	sosorpen zerbitzua
	Liseri aparatoa	M. Ansa	
P. Arrue	Urologia	A. Ubarretxena	Radiologia
B. Aseginolaza	Dermatologia		Ekografia orokorra
A. L. de Goikoetxea	Reumatologia		Ekografia ginekologikoa
	Medikuntza orokorra		Zain eta giharre ekografia
R. Orus	Medikuntza orokorra		Titi ekografia, etab.
J. Igartua	Otorrinolaringologia	I. Larruskain	Analisi klinikoak
V. Ormaetxea	Pediatra	J. D. Gisasola	Errehabilitazioa
R. Ayllon	Ginekologia	A. Perez	Errehabilitazioa
M. Garcia	Ginekologia	L. Azpiroz	A.T.S.
M. Ruibal	Neurologia		Azterketa Medikoak
L. Berdejo	Kirurgia		entrepresentzako
A. Galvany	Kirurgia		seguruentzako. etab.
A. Telleria	Dietetika-Elikadura		Txekeo, araketak

Nafarroa etorbidea, 25-2 - BEASAIN - Tel: 943 88 57 50 - 943 88 57 54

ATAUNEN 60. HAMARKADAN GALDU ZIREN ETA AURTEN BERRESKURATUKO DITUZTE

Erdi aroko Santa Ageda koplak XXI. mendean

Garai batean Ataunen abesten ziren Santa Ageda kantak berreskuratzeko asmoa dute Hergonen, duela 32-34 urte abestu ziren azken auzoan hasita. Kopla hauek Juan Arin, 'Don Juan Txiki' apaizak idatzi eta gorde zituen eta 1982an Isidro Baztarrikak, Joxe Arratibelen laguntzaz, 'Jaunaren Deia'ren 78. zenbakian argitaratu zituen. 1993ko urtarrilean GOIERRITARRAren 30. zenbakian berrargitaratu ziren. HBk antolatzen duen santaeske honi buruz hitz egiteko Maximo Aierberekin izan gara.

Koplak Santa Ageda bezperan, otsailak 4, iluntzeko 7etan hasita, eta egunean bertan, otsailak 5, iluntzeko 6,30etan hasita, kantatuko dituzte: Lehen egunean Hergonen eta bigarrenean Aian. Garai batean koadrila bakoitza bere auzoan ibiltzen zen eskean. "Koplak zekizkien jendea 32-34 urte kantatu gabe egonda, piska bat atzenduta dago, koplak kantatuz gero gogoratzen joaten dira. Eta oso gustora hartu dute berriaz ere kantatu behar direla jakitea" adierazi digu Maximok.

Kanta hauek erdi arotik datozela esaten da. Ertaroko erreferentzia dexente dauka: Errege, zaldun eta horrelakoenak. Koplak ez dira Ataungoak soilik, zabalduak daude Gipuzkoako beste herrietan ere baina Ataungoak dira zabalena, 119 bildu ziren GOIERRITARRA eta 128 iritsi da



Maximo, eta gehiago biltzeko itxaropena ere badu: "badakit Herri Irratian garai batean izan zen koplari baten koplak grabatuta daudela eta haiek lortu nahian nabil, koplak berririk edo ezberdinik badagoen jakiteko. Piskanaka koplari ibili zen jendearekin egonez ere bakarren bat berreskuratzeko esperantza daukat".

Orden finkoa

Sarrerako koplekin hasten da koplak abesten, hauek derrigorrezkoak dira. Gainerakoek orden bat dute: lehenengo nagusia koplantzen da, ondoren etxeokandrea, nagusi gaztea, andre gaztea, gizonezko alarguna, emakumezko alarguna, mutil gazteak zaharretatik gazteenera, neska gazteak zaharretatik gazteenera, apaiarentzat ere koplak pare bat badira eta bukaerako beste batzuk ere bai. Lehen base-rietan jende asko bizi zenez gau osoa ere pasatzen zuten kantari, baserri gutxi batzuetan kantatzeko.

Denborarekin koplak berriak ere joan ziren erasten, koplaria bera bertsolaria bazen berriak kantatzen joaten baitzen. "Nahasketa dexentea dago eta zaila da

kopla bakoitzaren jatorria zehaztea. Aita Isidro Baztarrikak dioenez, idatzi hauek guztiak Juan Arinek idatzitakoa dute oinarri eta gero bakoitza, garai haietan idazten zekiena, koplantzen joaten zen, hala ere buruz jakiten zituzten denak. Nik 4 koplak bilduma edo eskuizkribu batu ditut, denak dira berdintsuak baina bere berezitasunarekin. Osoenak Juan Arinek bildutakoak, GOIERRITARRA argitaratutakoak dira, eta nik hauek osatu ditut besteetan azaldutakoekin", dio Maximok. Oraindik ere gelditzen dira ale batzuk GOIERRITARRAren bulegoan norbaitek eskuratu nahi baditu.

Doinua oker

Doinu aldetik GOIERRITARRA eta 'Jaunaren Deia'n argitaratu zen doinua ez da zehatza, konpasa 3-4koa izan beharko litzateke eta Isidro Baztarrikaren bilduman 2-4koa bezala azaltzen da. Amaia Zubiria bere azken diskan Ataungo koplak batzuk grabatu ditu eta pianoz jo zioten garaian ezinezkoa iruditu zitzaion. "Inon ez dira kantatu Santa Ageda koplak konpas horrekin. Orduan Atauna etorri zen kantatuko zizkion norbaiten bila eta

nirekin egin' zuen topo. Idatzit nion nire ustez nola ziren koplak, gero abeslari bakoitzak bere jiroak sartzen dizkion arren".

Amaia Zubiria

Otsailaren 5ean Amaia Zubiria Aian ibiliko da kantatzen. Guztira 10-12 bat lagun izango dira, entseiuak urtarrilean zehar igandero ari dira egiten eta koplaria Joxe Bikuña izango da. Lehenengo kantariak abesten du eta gero gainontzekoek erantzun egiten diote. "Ez ditugu etxe bakoitzeko denak koplak, oso luze joango baitzen. Gune zehatzetan abestuko dugu inguruko etxeentzat 30 bat koplak eta baserri bakarretan koplak gutxiago kantatuko ditugu".

Azken urteetan HBren santaeskean abesti 'berriak' abesten dituzte. Denborarekin 3 bat talde egin eta herri guztian koplak zaharrak abestea dute asmoa. Aurtengo talde bat zaharrak abesten ibiliko bada ere, beste talde batek azken urteetako santaeskea egingo du gainerako auzoetan.

Ataun aztergai beka

Maximori eman diote aurtengo Ataun Aztergai beka, Ataungo kanten bilduma egiteko. "Dagoeneko idatzita dauzkadan 32 kantu bildu ditut, Ataungo kutsuren bat dutenak edo Ataunen abestu izan direnak. Ataunen sortutakoak diren edo ez ez dakit, eta ez dago jakiterik. Koplen kasuan inpresioa daukagu Nafarroako jatorria ote duten, baina, doinua berezia da eta ataungotzat jotzen dira".



Gabiriako 1940ko Korpus eguna

Maria Isabel Zumalakarregik utzi digu argazkia. Ziur ez badago ere, 1940. urtekoa dela uste du, Korpus egunean ateratakoa.

Goiko ilaran: Eva Altuna, Mercedes Galdos, Maria Txintxurreta, Angelita Oñatibia, Maria Luisa Iruin, Isabel Mandiola, Maria Mandiola. **2. ilaran:** Pakita Galdos, Mari Karmen Zubizarreta, Ana Murua, Sebastiana Amondarain, Felipa Agirrebengoa, Ana Zubizarreta, Josefa Oria eta Sebastiana Azarola. **3. ilaran:** Bizenta Oiarbide, Eusebia Etxeberria, Kandida Mandiola, Pilar Urkiola, Anastasia Arozena eta Laura Pikasari. **4. ilaran:** Edurne Murua, Tere Mujika, Antonia Agirrebengoa, Ramona Arruabarrena, Miren Iztueta, Juli Lopez, Ana Mari Oñatibia, Iñake Aramendi eta Kontxita Oñatibia. **Beheko ilaran:** Pia Alustiza, Mari Karmen Las, Eusebia Agirrebengoa, Miren Murua, Benita Elozegi, Juli Apaolaza eta Juanita Izuzkiza.

Oraingoan bai!

URTE BERRIA EUSKARAZ DATOR!



ESKAINNTZA

EUSKALDUNTZE eta
ALFABETATZE maila guztiak, EGA.
Ikasketa bereziak eskariei egokituak.
Ordutegi zabala.
Beka sistema daukagu.
Berri gehiago, Udal Euskaltegian.

BULEGO ORDUTEGIA

Goizez: 09:00-13:00 • Arratsalde: 15:00-19:00.

MATRIKULATZEKO EPEA

Urtarrilaren 15etik 29ra
16 urtetik gorakoentzat.

BEASAINGO UDAL EUSKALTEGIA

Loinazko San Martin plaza, Kultur Etxea, 1.a • 20200 BEASAIN
Tel.: 943 80 52 54 • Posta elektronikoa: udaleusk_beasain@jalgi.com



SAGARDOA TXOTXETIK GOIERRIN

BEGIRISTAIN

Haragia eta ogia jartzen ditugu
Egunero zabalik 19etatik 23etara
Igandeetan itxita
Eguerdietan enkarguz

☎ **943 65 28 37**
IKAZTEGIETA

AMEB

Txotx
DENBORALDIA
IREKI DUGU



Sagardotegia

URTE OSOAN
ZABALIK

☎ **943 16 25 23**
Zubierreka, 9
LAZKAO

ZALBIDE SAGARDOEGIA



Astegunetan 19:00etatik aurrera
Asteburuetan eguerdi eta iluntzean
Arraiak parrilan

☎ **943 65 21 76**
ABALTZISKETA

KORTA

Menu berezia 2.200 pzta.
Tortila, txuleta indibiduala, gazta,
menbrillu eta ardo edo sagardoa

☎ **943 88 71 86**
GABIRIA

Olagi



Urte guztian zehar zabalik

☎ **943 88 77 26**
ALTZAGA

Sagardotegia



aulia

☎ **943 80 60 66**
LEGORRETA

OTATZA

Aste guztian zabalik, asteazkena ezik
Larunbat eta igandeetan eguerdiz ere ire-
kita (asteaz zehar eguerditan enkarguz)

Txotx denboraldia 15tik zabalik
☎ **943 80 17 57**
ZERAIN



ETXE-ZVRI
SAGARDOEGIA

☎ **943 88 20 49**
OLABERRIA

TXERTAKADI

- ✓ Sagardotegiko denboraldian zaba-
lik, maiatza alderarte
- ✓ Igande eguerdi eta gauetan zabalik
- ✓ Astelehenetan atsedena.

☎ **943 16 13 59**
ZALDIBIA



TXIMIETA
Sagardotegia

Egunero zabalik, eguerdi eta gauean

Gudarien Etorbidea
☎ **943 88 11 28**
ORDIZIA

URBITARTE



☎ **943 18 01 19**
ATAUN



ERRETEGIA
SAGARDOEGIA
KATTALIN

Txotx denboraldia zabalik

Antzizar auzoa
☎ **943 88 92 52**
BEASAIN

Antzizar kiroldegiko aukera ezin hobetaz baliatu zaitez

Honakoak dira gure eskaintzak:

Bestelako zerbitzuak

- Igerileku klimatizatu
- Estaligabeko igerilekuak (uda)
- Estalitako pilotalekua
- Pilotaleku txikiak
- Estaligabeko teniseko pista
- Mini tenis
- kiroletako pabiloia
- Tatami Gimnasilekua
- Aerobic Gimnasilekua
- Arku Tiroketa aretoa
- Estalitako arrokodromoa
- Fitness zentrua
- Saunak eta lurrin bainua

- Haur igeriketa
- Helduen igeriketa
- Fitnes Programa pertsonalizatua
- Mant-Gym
- Aerobic-Step
- Atzegi. Kirol Egokitua
- Igeriketa Down
- Aretoko dantzak. Saltsa
- Programa Terapeutikoa
- Tenis eskola
- Kirola naturan
- 3. Adinekoen kiroleetako programa
- Shorinji-kempo

- Gorputz tratamenduko aretoa
- Masaia
- Mediku azterketak
- Solarium
- hidro masaia
- Ikus-entzuneke aretoa. Batzar aretoa
- Kafetegia
- Kiroletako denda

